

HELLOMOTO

MOTOROLA Z6 GSM mugikor berriaren aurkezpena.



Kliskatzeko barra

Sakatu gorantz tapa irekitzeko.

Bolumen-teklak




Tapa itxita dagoenean, tonuaren bolumena ezartzeko.

Funtzio ugariko tekla

Menuko elementuak hautatzeko eta nabigatzailea abiarazteko.

Esku-librekoaren bozgorailua

(telefonoaren atzeko aldean)



Kameraren objektiboa eta kameraren argia, intentsitate handiko LED argia

(telefonoaren atzeko aldean)

Ahots-komandoaren tekla

Erabili ahots-komandoaren tekla deituzko eta telefonoko oinarritzko funtzio batzuk egiteko.


Kamera-tekla

Kamera aktibatu eta argazkiak ateratzeko.

USB miniataka

Bateriaren kargagailua eta telefonoaren gainerako osagarriak sartzeko.


Pantaila nagusia




2

Sakatu *erdiko tekla*  *menúa* irekitzeko.


1

Telefonoa pizteko, luze sakatu telefonoa *pizteko tekla* , pantaila piztu arte.

Menu nagusia



3

Sakatu *nabigazio-tekla*  gora, behera, ezkerrera edo eskuinera, menuko funtzio batera joateko.

4

Sakatu *erdiko tekla*  hautatzeko.

Oharra: Hemen pantaila nagusia eta menu nagusi estandarren kokapena bistaratzen dira. **Litekeena da zure telefonoak beste aukera batzuk izatea.**

Pantaila nagusiko zuzeneko sarbideak eta menu nagusiaren itxura aldatzeko, ikus 93. orrialdea.

www.hellomoto.com

Telefono mugikorraren funtzio batzuk operadorearen aukeren eta sare-konfigurazioaren arabera dira. Bestalde, baliteke operadoreak funtzio batzuk ez aktibatzea eta/edo operadorearen sarearen konfigurazioak nolabait horien funtzionaltasuna mugatzea. Jarri harremanetan operadorearekin, erabilgarritasuna eta funtzionaltasuna kontsultatzeko. Produktuaren funtzio, funtzionaltasun eta bestelako zehaztasun guztiak, eta erabiltzailearen eskuliburu honetako informazioa, eguneratutako informazioan oinarrituta daude, eta gaur egun zehatzenak dira argitaratzeko unerako. Motorolak eskubidea du, aurrez jakinarazi gabe, informazioa edo zehaztapenak aldatzeko.

MOTOROLA eta M logotipo estilizatuak AEBko Patenteen eta Marka Erregistratuen bulegoan daude erregistratuta. Bluetooth marka komertzialak haien jabearenak dira eta Motorola, Inc.-ek lizentziarekin erabiltzen ditu. Java eta Javan oinarritutako gainerako marka guztiak Sun Microsystems, Inc.-en marka komertzialak edo erregistratuak dira AEBn eta beste herrialdeetan. Microsoft Corporation-en marka komertzial erregistratuak dira Microsoft eta Windows; Windows XP eta Windows Media, berriz, Microsoft Corporation-en marka komertzialak dira. Apple Computer, Inc.-en marka erregistratua da Macintosh. Gainerako produktu- edo zerbitzu-izenak beren jabeenak dira.

© Motorola, Inc., 2007.

Kontuz: Motorolak espresuki baimenik eman gabe telefono mugikorrean aldaketak eginez gero, erabiltzailea ekipoa erabiltzeko baimenik gabe geratuko da.

Softwarearen egile-eskubideei buruzko ohartarazpen legala

Gida honetan azaldutako Motorolaren produktuek Motorolaren edo hirugarrenen softwarea eduki dezakete, erdieroalezko memorietan edo bestelakoetan grabatuta, egilearen eskubideek babestuta. Estatu Batuetako eta beste herrialde batzuetako legeek Motorolari eta beste software-fabrikatzaileei eskubide berezi batzuk eman dizkiete egile-eskubideek babestutako softwareari buruz; besteak beste, software-produktu horiek banatzeko edo erreproduzitzeko eskubideak.

Horren arabera, egile-eskubideek babesten dituzten softwareak, Motorolaren produktuetan badaude, ezingo dira aldatu, banatu edo erreproduzitu, eta atzerantzko ingeniariak ere ezingo zaie aplikatu legea kontuan hartuta. Gainera, Motorolaren produktuak erostea ez da hartu behar lizentziatzaile –zuzeneko edo inplikaziokoa, alegaziokoa edo bestelakoa–, egile-eskubidetzaile edo Motorolaren edo beste software-fabrikatzaileen patentetzaile edo patenteen aplikatzaile. Erabilera arrunterako lizentzia bakarrik ematen du, ez eskusibo eta eskubiderik gabeko, produktua saltzetik inplizituki sortua.

Edukia

Menuen diagrama**	8	Gordetako telefono-zenbakietara deitzea	32
Segurtasunari buruzko informazioa...10		Zure telefono-zenbakia	32
FCCren oharra	18	Erakargarritasun nagusiak	33
Erabilera eta zaintza	20	Audio-erreproduzitzaila.....	33
Europako legeak betetzea	21	Argazkiak	44
Birziklatzeari buruzko informazioa ... 23		Bideoak.....	48
Oinarrizko kontzeptuak	24	Taparen funtzioak.....	53
Eskuliburu honi buruz	24	Fitxategi-administratzailea	56
SIM txartela.....	25	Kable bidezko konexioak.....	58
Memoria-txartela	26	Haririk gabeko Bluetooth®	62
Bateria.....	27	Testu-mezuak.....	68
Telefonoa piztea eta itzaltzea	30	Telefonoko eguneratzeak.....	70
Deiak egitea	30	Oinarrizko kontzeptuak	71
Deiari erantzutea	31	Pantaila	71
Telefono-zenbakiak gordetzea.....	31	Testua idaztea.....	75
		Bolumena	79

Nabigazio-tekla.....	80	Ahots-postontzia	102
Alboko aukeraketa-tekla	80	Beste zenbait funtzio	103
Ahots-komandoak.....	81	Dei-funtzio aurreratuak	103
Esku-librekoaren bozgorailua	83	Kontaktuak	107
Kodeak eta pasahitzak	84	Mezuak.....	113
Telefonoa blokeatzea eta desblokeatzea	84	Pertsonalizatzea	116
Pertsonalizatzea	86	Deien iraupenak eta kostuak	120
Profilak.....	86	Esku libreko funtzioa.....	121
Eguna eta ordua.....	89	Datu-deiak.....	122
Gaiak.....	90	Sarea.....	125
Pantailaren itxura	92	Antolatzaile pertsonala	125
Zuzeneko sarbideak eta menu nagusia	93	Segurtasuna	129
Erantzuteko aukerak.....	95	Aisia eta jokoak	130
WAP profilak konfiguratzea	96	AEK datuak	132
Deiak.....	98	MOEren informazioa	135
Dei-alerta desaktibatzea.....	98	OSS informazioa	136
Azken deiak.....	98	Aurkibidea	137
Berriro deitzea.....	100		
Deiak itzultzea	100		
Dei-identifikazioa	100		
Larrialdi-deiak	101		

Menuen diagrama^{**}

Menu nagusia



Llamadas



Contactos



Mensajes

- Nuevo Mensaje
- Band. Entrada
- Buzón de Voz
- Mis Carpetas Plantillas
- Borradores
- Band. Salida
- Nueva Postal*
- Almacenar Online
- Email



Herramientas

- Calendario
- Despertador
- Calculadora
- Lista de Tareas
- Ayuda
- Notas
- Email
- Motosync
- Gestor Descargas
- Gestor Archivos
- Hora Mundial
- Aplicaciones SIM*
- Serv. Marcación
- Marcación Fija
- Número Servicio *



MotoSource



WAP

- Navegador
- Favoritos
- Mis Páginas Web
- Historial
- Ir a Página
- Configurar WAP



Multimedia

- Música
- Cámara
- Imágenes
- Cámara de Vídeo
- Vídeos
- Grabadora de Voz



Conexiones



Configuración


- (joan hurrengo orrira)



* aukerako funtzioak

** Hori da menu nagusiaren banaketa estandarra.

Litekeena da zure telefonoak beste aukera batzuk izatea.

Pantaila nagusiko zuzeneko sarbideak eta menu nagusiaren itxura aldatzeko, ikus 93. orrialdea.

Aholkua: Sakatu , menu nagusiari zerrenda-itxura emateko edo atzera egiteko.

Aholkua: Sakatu , menutik ateratzeko edo sakatu , menu guztietatik ateratzeko.

Konfigurazio-menua

- **Perfiles**
 - **Temas**
 - **Config. Llamadas**
 - Marcación Rápida
 - Desvío de Llamadas
 - Llamada Entrante
 - Mostrar Mi Número
 - Llamada en Espera
 - Alerta Lam. Entrante
 - Contador de Tiempo
 - Activar Línea *
 - Opciones Respuesta
 - Rellamada Automát.
 - Alerta en Itinerancia
 - DTMF
 - Bloqueo de Llamada *
 - Marcación Fija
 - Tono Llamada Perdida
 - Mi Número de SIM
 - **Config. Teléfono**
 - Config. Pantalla
 - Apagar Luz de Fondo
 - Apagar Pantalla
 - Salvapantallas
 - Brillo
 - Nivel de Batería
 - Ahorro de Batería
 - Hora y Fecha
 - Tapa Cerrada
 - Idioma
 - Marcación por Voz
 - Método de Escritura
 - Restablecer
 - Restabl. Configuración
 - Borrar todos los Datos
 - Borrar Tarj. Memoria
 - Propiedades
 - Sistema Java
 - Config. Manos Libres
 - **Seguridad**
 - Bloqueo de Teléfono
 - Bloqueo de Teclado
 - Bloqueo Aplicación
 - Solicitar PIN Cambiar
 - Códigos Certificados
 - **Red**
 - Red Actual Redes
 - Disponibles Buscar
 - Nuevas
 - Redes Mi Lista de Redes
 - Configuración
 - Tono de Servicio
- * aukerako funtzioak

Informazio orokorra eta segurtasunari buruzkoa

Atal honek informazio garrantzitsua du zure telefono mugikorra modu seguruan eta eraginkorrean erabiltzeari buruz. Irakurri informazio hau zure telefono mugikorra erabili aurretik.¹

Irrati-maiztasuneko (IM) energiarekiko esposizioa

Zure mugikorrak transmisore eta hartzaile bana ditu. Konektatuta dagoenean ("ON"), IM energia jasotzen eta transmititzen du. Telefono mugikorraren bidez komunikatzen zarenean, zure deiaz arduratzen den sistemak zure telefonoak transmititzen duen potentzia-maila kontrolatzen du.

Motorola telefono mugikorra bereziki diseinatuta dago gizakiak IM energiaren eraginpean egoteari buruz herrialde bakoitzean dauden legeak betetzeko.

Funtzionamenduari buruzko neurriak

Zure telefono mugikorrak errendimendu egokia izan dezan eta gizakiak IM energiaren eraginpean egoteari buruzko arauak betetzen direla bermatzeko, jarraitu beti jarraibide eta neurri hauei.

-
1. Dokumentu honetako informazioak 2006ko maiatzaren 1era arte argitaratu diren erabilera-eskuliburuetan dagoen segurtasunari buruzko informazio orokorra ordeztzen du.

Kanpoko antena zaintzea

Zure telefonoak kanpoko antena badu, erabili Motorolak emandako antena edo homologatutako beste antena bat bakarrik. Baimendu gabeko antenek, aldaketek edo erantsiek telefonoan kalteak eragin ditzakete eta/edo herrialde bakoitzean ezarritako legeak urra daitezke.

EZ eutsi kanpoko antenari telefonoa ERABILTZEN ari zarenean. Kanpoko antenari eusteak deiaren kalitatean eragin dezake, eta telefonoak behar baino potentzia-maila handiagoan funtzionatzea eragin dezake.

Produktua erabiltzea

Deiak egitean edo jasotzean, erabili telefonoa telefono finkoak erabiltzen dituzun bezalaxe.

Telefonoa soinean baduzu, jarri beti Motorolak emandako eta homologatutako euskarri, zorro, kutxa edo tresna batean. Motorolak homologatutako edo emandako gorputz-osagarriren bat erabiltzen ez baduzu, ziurtatu telefonoa eta antena gorputzetik gutxienez 2,5 cm-ko distantzian daudela transmititzen ari denean.

Telefonoaren datu-funtzioren bat erabiltzen baduzu, kable-osagarriarekin edo hori gabe, jarri telefono mugikorra eta antena gorputzetik gutxienez 2,5 cm-ra.

Motorolak eman edo homologatu gabeko osagarriak erabiltzeak IM energiaren eraginaren arauetan ezarritako muga ginetik egotea eragin dezake. Motorolak eman edo homologatutako osagarrien zerrenda bat topa dezakezu www.motorola.com web orrian.

IM energia: interferentziak eta bateragarritasuna

la gailu elektroniko guztiek izan ditzakete interferentziak kanpo-iturrietako IM energiarekin, ongi babestuta ez badaude eta IM energiarekiko bateragarritasuna eskaintzeko diseinatuta edo konfiguratuta ez badaude. Kasu batzuetan, zure telefono mugikorrek interferentziak sor ditzake beste gailu batzuekin.

Erabili ahal izateko bi baldintza hauek bete behar ditu:

- [1]** Ez du interferentzia kaltegarririk sortu behar,
- [2]** Jasotako interferentziak onartu behar ditu, baita nahi ez diren operazioak eragin ditzaketanak ere.

Interferentzia-arazoak saihesteko, jarraitu urrats hauei

Itzali telefonoa hala adierazten duten oharrak dauden lekuetan. Leku horiek kanpoko IMen energiarekiko sentikorrek diren ekipoak erabiltzen dituzten ospitaleak edo instalazio sanitarioak izan daitezke.

Hegazkinetan, itzali gailu mugikorra tripulazioak hala adierazten duen guztietan. Gailuak hegaldietarako moduren bat edo antzeko ezaugarriren bat badu, kontsultatu tripulazioari erabil dezakezun.

Taupada-markagailua

Taupada-markagailua baldin baduzu, galdetu zure medikuari gailu hau erabili aurretik.

Taupada-markagailua duten pertsonak neurri hauek hartu behar dituzte:

- Telefonoa piztuta dagoenean ("ON"), taupada-markagailutik 20 zentimetrora baino gehiagora eduki behar dute BETI.
- INOIZ EZ dute telefonoa bular pareko poltsikoan eraman behar.
- Taupada-markagailuaren kontrako aldeko belarria erabili behar dute, interferentziak izateko aukera murrizteko.
- Telefonoa berehala itzali behar dute, arrazoiren batengatik interferentziak sortzen ari dela susmatzen badute.

Entzuteko gailuak

Zenbait telefono mugikor digitaletan interferentziak sor ditzakete entzuteko zenbait aparaturekin. Horrelako interferentziak sortuz gero, mesedez, kontsultatu entzuteko gailuaren fabrikatzaileari edo zure medikuari arazoari konponbideren bat aurkitzeko.

Beste gailu mediko batzuk

Beste gailu medikoren bat erabiltzen baduzu, kontsultatu zure medikuari edo gailuaren fabrikatzaileari IM energiaren aurka behar bezala babestuta dagoen ala ez jakiteko.

Gidatzean kontuan hartu beharrekoak

Kontsultatu gidatu bitartean telefono mugikorrek erabiltzeari buruz zure herrialdean dauden legeak. Bete itzazu beti.

Gidatu bitartean telefono mugikorra erabiltzen duzunean, gogoan izan hau:

- Kontuz gidatu eta jarri arreta osoa errepidean. Telefono mugikorrak erabiltzeak arreta galaraz diezazuke. Eten ezazu deia, arretaz gidatu ezin baduzu.
- Erabilgarri badago, erabili esku libreko funtzioa.
- Aldendu errepidetik eta gelditu ibilgailua dei bat egin edo jaso aurretik, egoerak hala eskatzen badu.

Gida honen bukaeran aurkituko duzun “Gidatzeko jardunbide egokiak” atalean eta/jedo Motorolaren web orrian:

www.motorola.com/callsmart

Erabilerari buruzko oharrak

Egin kasu telefono mugikorrak gune publikoetan erabiltzearen inguruko seinale guztiei, hala nona osasun-erakundeetan edo lehergaien detonazioguneetan.

Airbaga duten ibilgailuentzat

Ez jarri telefono mugikorra airbaga irekitzen den lekuan.

Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

Lehergaiak egon daitezkeen inguruneak seinaleztatuak egon ohi dira, baina ez beti, eta barnean hartzen dituzte erregaiak hartzeko guneak –adibidez, itsasontzien bizkarraren azpiko guneak–, erregaiak edo produktu kimikoak biltegitartzeko edo garraiatzeko instalazioak eta airean substantzia kimikoak edo partikulak –hala nola, erregai-hautsa edo metal-hautsak– dauden eremuak.

Deskonektatu mugikorra lehergaiak egon daitezkeen inguruetara sartu aurretik. Ez utzi, instalatu edo kargatu bateriarik inguru horietan. Eremu horietan txinpartak sor daitezke, eta, horien ondorioz, leherketaren bat edo sua gerta daiteke.

Hondatutako produktuak

Telefono mugikorra edo bateria uretan sartu badira, zulatu egin badira edo erorketa larriren bat jasan badute, ez erabili Motorolaren zerbitzu tekniko baimendu batera eraman aurretik. Ez saiatu lehortzen kanpoko bero-iturri baten bidez, adibidez, mikrouhinen bitartez.



Bateriak eta kargagailuak





Bitxiek, giltzek, metalezko kateek edo bestelako material eroaleek zure telefono mugikorraren bateria ukitzen badute, zirkuitu elektriko bat (zirkuitulaburra) gerta daiteke edo asko berotu daiteke, eta kalteak eragin diezazkioke pertsonari.

Kontuz ibili kargatutako bateria bat erabiltzean, batik bat, patrikan, eskuko poltsan edo objektu metalikoak dituen beste nonbait sartzean. **Erabili beti Motorolaren jatorrizko bateriak eta kargagailuak.**

Kontuz: kalte pertsonalik egon ez dadin, ez bota bateria sutara.

Bateriak, kargagailuak edo telefono mugikorrak ikurrak izan ditzakete. Hau da ikurren esanahia:

Ikurra	Definizioa
	Segurtasun-informazio garrantzitsua adierazten du.
	Telefono mugikorra edo bateria ez dira sutara bota behar.

Ikurra	Definizioa
	Beharbada, bateria edo telefono mugikorra tokiko legeen arabera birziklatu behar dira. Kontsultatu tokiko agintari eskudunekin informazio gehiago lortzeko.
	Bateria edo telefono mugikorra ez dira zakarretara bota behar.
	Zure telefono mugikorrek litio-ioizko bateria du.
	Bateria, kargagailua eta telefono mugikorra ez daitezela busti.
	Entzumenari kalte egin diezaioke musika edo bestelako soinuak entzungailuekin oso ozen entzuteak.

Elektrizitate-egokigailua da ekipoa deskonektatzeko gailua. Korrontehartuneak ekipotik gertu egon behar du, eta erraz iristeko toki batean.

Itotzeko arriskua

Telefono mugikorrek edo haren osagarriak pieza desmontagarriak izan ditzakete, eta horiekin ito egin daitezke haur txikiak. Ez utzi telefonoa eta haren osagarriak haur txikien eskueran.

Beirazko osagaiak

Baliteke gailu mugikorreko osagai batzuk beiraz eginda egotea. Beira hori hautsi egin daiteke produktua gainazal gogor batera erortzen bada edo kolpe handia hartzen badu. Beira apurtzen bada, ez ukitu eta ez saiatu kentzen. Ez erabili gailu mugikorra zerbitzu tekniko gaitu batean beira aldatu arte.

Epilepsia-krisiak edo zorabioak

Pertsona batzuek epilepsia-krisiak edo zorabioak izan ditzakete keinuka dauden argien eraginpean, hala nola bideo-jokoetan aritzean. Litekeena da epilepsia-krisi edo zorabio horiek sekula horrelakorik gertatu ez zaien pertsoneri ere gertatzea.

Epilepsia-krisirik edo zorabiorik izan baduzu edo horrelako familia-aurrekaririk baduzu, galdetu medikuari mugikorrarekin bideo-jokoetan jolasean aritu edo mugikorraren argi keinukarien funtzioa erabili baino lehen (zure mugikorrak funtzio hori izanez gero).

Sintoma hauetakoren izanez gero, utzi erabiltzeari eta joan medikuarengana: konbultsioak, begien edo muskuluen mugimendu konbultsiboak, konortea galtzea, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa.

Gomendagarria da pantaila begietatik distantzia jakin batera izatea, gelako argiak piztea eta orduro 15 minutuko atsedena hartzea; oso nekatuta egonez gero, utzi gailua erabiltzeari.

Errepikatzen diren mugimenduak

Errepikatzen diren ekintzak egitean, hala nola teklak sakatzea edo testu-karaktereak sartzea hatzez, batzuetan, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputzeko beste ataletako mina senti daiteke. Gailua erabiltzen ari zarela edo erabili ondoren ondoeza desagertzen ez bada, utzi erabiltzeari eta joan medikuarengana.

FCCren oharra erabiltzaileentzat

Adierazpen hau FCCren (Komunikazio Batzorde Federala) onespena duten produktu guztiei buruzkoa da (Comisión Federal de Comunicaciones). FCCren logoa eta/edo FCCren identifikazioa (FCC-ID: xxxxxx) dute aplikatu beharreko produktuek etiketan.

Motorolak ez du onartu erabiltzaileak gailu honetan egin dezakeen aldaketarik. Edozein aldaketak bertan behera utz dezake ekipoa erabiltzeko erabiltzaileari emandako baimena. Ikus 47 CFR, 15.21 sek.

Gailu honek FCCren araudiko 15. atalean ezarritakoa betetzen du. Erabili ahal izateko bi baldintza hauek bete behar ditu: (1) gailu honek ez du interferentzia kaltegarriarik sortu behar eta (2) gailu honek jasotzen duen edozein interferentzia onartu behar du, nahi ez den funtzionamendua eragin dezaketenak barne. Ikus 47 CFR, 15,19 (3) sek.

Zure gailu mugikorrek datuak transferitzeko USB konektorea badu, edo ordenagailu batera konektatzeko periferikotzat jotzen bada, B motako gailua izango da, eta adierazpen hau aplikatuko zaio:

Ekipo honek proba bat gainditu du eta ikusi da B motako gailu digitaletarako ezarritako mugak betetzen dituela, FCCren Araudiko 15. atalean ezarritakoaren arabera. Muga horien helburua da arrazoizko babes ematea etxeko instalazioetan kalteak eragin ditzaketen interferentzien aurka.

Ekipo honek irrati-maiztasunaren energia sor, erabil eta igor dezake, eta jarraibideen arabera instalatzeko eta erabiltzen ez bada, interferentzia kaltegarriak sor ditzake irrati bidezko komunikazioetan. Hala ere, ezin da bermatu instalazio jakin batean interferentziarik sortuko ez denik. Ekipo honek irrati edo telebista jasotzeko garaian interferentzia kaltegarriak sortuko balitu (ekipoa itzali eta berriro piztuta ikus daiteke hori), erabiltzaileari aholkatzen zaio interferentzia hori zuzen dezala aukera hauetako baten bidez:

- Antena hartzailearen orientazioa edo kokapena aldatu.
- Hartzailearen eta ekipoaren arteko tartea handitu.

- Ekipoa eta hartzailea korrante-hartuneen zirkuitu desberdinerara konektatu.
- Irrati/telebista gaietan aditua den banatzaileari edo teknikariari laguntza eskatu.

Erabilera eta zaintza

Motorola telefonoa babesteko, hauetatik urrun eduki:



Mota guztietako likidoak

Ez utzi telefonoa uraren, euriaren, kanpoko hezetasunaren, izerdiaren edo bestelako hezetasun-moten eraginpean.



Bero edo hotz handia

Saihestu $-10\text{ }^{\circ}\text{C}$ -tik beherako edo $45\text{ }^{\circ}\text{C}$ -tik gorako tenperaturak.



Mikrouhinak

Ez saiatu telefonoa mikrouhin-labe batean lehortzen.



Hautsa eta zikinkeria

Ez utzi telefonoa hautsaren, zikinkeriaren, harearen, janariaren edo desegokiak diren beste hainbat materialen mende.



Garbitzeko produktuak

Telefonoa garbitzeko, erabili zapi leun eta lehorra. Ez erabili alkoholik edo bestelako garbigarririk.



Zorua

Telefonoa ez dadila eror.

Europako Batasuneko jarraibidee- kiko adostasun-deklarazioa



ADOSTASUN-
DEKLARAZIOA
- 1890/2000 araudia,
2005eko azaroaren 20koa

Erreferentzia

LV012/05/356393/D

Guk –Motorola Inc, US Highway N 45,
IL 60048, AEB– gure erantzukizunaren
baldintzapean aitortzen dugu
produktu honek

Izena/Mota

MOTOROKR Z6

Deskribapena

GSM 850/900/ 1800/1900 GPRS 12 motako telefono mugikorra, 2 motako Bluetooth teknologia duena
--

Oharra

--

betetzen ditu:

- bete beharreko baldintzak eta 1999/5/EE jarraibideko gaiari buruzko gainerako xedapenak
- Europako Batasuneko gaiari buruzko gainerako jarraibideak

IMEI: 350034/40/394721/9

CE0168

Type:MC241H14

Produktuaren
onarpen-
zenbakia

Aurreko taulan Produktuaren Onarpen
Zenbakiaren ohiko adibide bat ikus
daiteke.

Europako legeak betetzea

Produktu honek betetzen ditu arau-dokumentu edo -estandar hauek, batez ere, direktibaren 3. artikuluko baldintza espezifikoak.

3.1.a artikulua	EN50360:2001, EN60950:2000
3.1.b artikulua	EN 301 489-01 V1.4.1: 08.2002 EN 301 489- 17V1.1.1:09.2000 EN 301 489-07 V1 .2.1: 08-2002
3.2 artikulua	ETSI EN 301 511 V9.0.2 EN 300 328-2 V1 .2.1
10 artikulua	Hitzarmenaren adostasun-prozesua eta V. eranskina goian aipatutako direktibaren oinarrizko baldintza guztiei aplikatu zaizkie, BAPT0168 erabiliz atal jakinarazi gisa.

Lars S. Nielsen
Zuzendaria
Motorola GmbH
Husumerstrasse 251
D242941 Flensburg
Alemania

Telefonoa: +49 461 803 0

Faxa: +49 461803 1829

h.el.: rtte@motorola.com



(ordezkari
baimenduaren
sinadura)

Motorola Inc.-en idatzizko onarpenik gabe, dokumentu honek ez du baliorik izango homologazio- edo inportazio-froga gisa.

Birziklatzea ingurumena zaintzeko



Ikur hau Motorolaren produktu batean ikusten baduzu, ez bota etxeko zakarretara.

Telefono mugikorrak eta osagarriak birziklatzea

Ez bota telefono mugikorrak eta osagarri elektronikoak, adibidez, kargagailuak eta entzungailuak, etxeko zakarretara. Herrialde batzuetan badaude ekipo elektronikoak biltzeko sistemak. Jarri harremanetan zure herrialdeko agintariekin xehetasun gehiago eskuratzeko. Biltzeko sistema horiek erabilgarri ez badaude, nahi ez dituzun telefono mugikorrak eta osagarri elektronikoak itzuli zure herrialdeko Motorolaren edozein zerbitzu-zentrora.





Oinarrizko kontzeptuak



Eskuliburu honi buruz

Eskuliburu honetan, menuetako funtzioak nola aurkitu azaltzen da, ondoren adierazten den moduan:

Bilatzeko:  >  **Mensajes** > **Nuevo Mensaje**

Beraz, pantaila nagusian:

- 1 Sakatu *erdiko tekla*  menua irekitzeko.
- 2 Sakatu *nabigazio-tekla*  **Mensajes**  aukerara joateko, eta, ondoren, sakatu *erdiko tekla*  hautatzeko.

- 3 Sakatu nabigazio-tekla  **Nuevo Mensaje** aukerara joateko, eta, ondoren, sakatu *erdiko tekla*  hautatzeko.

Ikurrak



Adierazten du aukera hori sarearen, SIM txartelaren edo harpidetutako kontratutaren mende dagoela, eta litekeena dela leku batzuetan erabiltzeko aukerarik ez izatea (SIM, Subscriber Identification Module: abonatuaren identifikazio-modulua). Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zure operadorearekin.




Horrek adierazten du funtzioak aukerako osagarri bat behar duela.

SIM txartela


Kontuz: ez tolestu eta ez urratu SIM txartela. Elektrizitate estatikotik, uretik eta zikinetik urrun eduki.

SIM txartelak informazio pertsonala du, adibidez, erabiltzailearen telefono-zenbakia eta kontaktuen zerrendako sarrerak.


- 1 Sakatu bateriaren tapa blokeatzeko botoia.



- 2 Altxatu eta kendu bateriaren tapa.



- 3 Eutsi SIM txartelari hozka beheko eskuineko izkinan eta urre-koloreko kontaktuak behean dituela. Lerratu SIM txartela dagokion zirikkituan sartzeko, irudian ikus daitekeen bezala.



Memoria-txartela


Kontuz: ez tolestu eta ez urratu memoria-txartela. Elektrizitate estatikotik, uretik eta zikinetik urrun eduki.

Musika, argazkiak eta beste multimedia-fitxategi batzuk gorde ditzakezu microSD memoria-txartelean; txartel hori aukerakoa da eta atera egin daiteke.


Oharra: Zure telefonoak 2 GB arteko memoria-txartelak erabil ditzake (beraz, 1 GB baino gehiago gordetzeko gaitasuna du, eta SanDisk-en microSD txartelek bakarrik dute berme hori).



Memoria-txartela **sartzeko**, jarri metalezko kontaktuak behera begira dituela eta lerratu metalezko bandaren azpitik, irudian ikus daitekeen moduan.







Memoria-txartela **ateratzeko**, sakatu eusteko irtengunea eta atera memoria-txartela zirrikitutik.




Bateria

Bateria instalatzea



Bateria kargatzea

Bateria berriak ez dira guztiz kargatuta egoten. Konektatu bateriaren kargagailua telefonoaren USB miniatakara eta entxufatu beste aldea korronte-hartunera. Baliteke bateria ez hastea berehala kargatzen.



Bateria kargatuta dagoenean, bateriaren karga-adierazlea agertzen da. Pantailan **Carga Completa** mezua bistaratuko da, amaitzen duenean.

Aholkua: Bateria ezin da gainkargatu. Hainbat alditan erabat kargatzen eta deskargatzen denean, errendimendu hobea izango du.

Oharra: Telefonoaren bateria karga daiteke telefonoaren USB miniatakatik ordenagailu baten USB atakara konektatuz. Telefonoak eta ordenagailuak piztuta egon behar dute, eta ordenagailuan beharrezko software-kontrolagailuak izan behar dira. Software-kableak eta kontrolagailuak Motorolaren jatorrizko datu-kitetan eskura daitezke, eta bereizita eros daitezke.



Bateriari buruzko iradokizunak

Bateriaren iraupena sarearen, estalduraren, giro-tenperaturaren, funtzioen eta erabiltzen dituzun osagarrien arabera dago.

- Erabili beti Motorolaren jatorrizko bateria eta kargagailuak. Telefonoaren bermeak ez ditu bere gain hartzen beste marka batzuetako bateriak edo kargagailuak erabiltzeagatik sortutako kalteak.
- Bateria berriek edo denbora askoan biltegian egon direnek, agian, denbora gehiago beharko dute kargatzen.
- Kargatzen ari denean, eduki bateria giro-tenperaturan.
- Gorde bateria deskargatuta, toki fresko, ilun eta lehor batean.



- Inoiz ez eduki bateria $-10\text{ }^{\circ}\text{C}$ baino gutxiagoko edo $45\text{ }^{\circ}\text{C}$ baino gehiagoko tenperaturan. Ez utzi telefonoa ibilgailuan, hura uzten duzunean.
- Normala da bateriak gastatuz joatea eta kargatzeko gero eta denbora gehiago behar izatea. Bateriaren iraupenean aldaketarik egon bada, bateria berria erostea komeni da.



Bateria botatzeko, jarri harremanetan zure herriko hondakinak biltzeko gunearekin.

Oharra: ez bota inoiz bateriak sutara, lehertu egin baitaitezke.


Telefonoa erabili aurretik, irakurri eskuliburu honetako bateriaren segurtasunari buruzko informazioa "Informazio orokorra eta segurtasunari buruzkoa" atalean.

Telefonoa piztea eta itzaltzea


Kontuz: Litekeena da telefonoa pizten duzunean SIM txartelaren PIN kodea eskatzea. Kode zuzena sartu aurretik, hiru aldiz segidan okerreko PIN kodea sartzen baduzu, zure SIM txartela desaktibatu egingo da eta telefonoak **SIM Bloqueada** mezua bistaratuko du.


Jarri harremanetan operadorearekin.

Telefonoa pizteko, luze sakatu *pizteko/itzaltzeko tekla*


 teklatura edo pantaila piztu arte. Eskatutakoan, sartu SIM txartelaren PIN kodearen 4 digituak

eta/jedo 8 digituko desblokeatze-kodea.

Telefonoa itzaltzeko, luze sakatu  tekla segundo batzuetan.





Deiak egitea

Ireki tapa eta idatzi telefono-zenbakia; ondoren, sakatu *bidaltzeko tekla*  deia egiteko.


Ahots-markaketa erabilita deitzeko, ikus 81. orrialdea.


Esekitzeko, sakatu *pizteko/itzaltzeko tekla*

 Tapa ixteko funtzioa zereginak amaitzeko konfiguratuta badago, deia amaitzeko tapa itxi dezakezu (ikus 54. orrialdea).

Aholkua: tapa itxita duzula, deia egin dezakezu. Hautatu kontaktuen zerrendan gordetako telefono-zenbakietako bat, eta, ondoren, sakatu  zenbaki horretara deitzeko. (zenbaki bat kontaktuen zerrendan gordetzeko, ikus 31. orrialdea).

Deiari erantzutea



Telefonoak jotzean edo dar-dar egitean, ireki tapa edo sakatu *Bidaltzeko tekla*  erantzuteko.

Esekitzeko, sakatu *pizteko/jitzaltzeko* tekla  Zereginak amaitzeko tapa ixteko funtzioa konfiguratuta badago, deia amaitzeko tapa itxi dezakezu (ikus 54. orrialdea).

Aholkua: deia hartu nahi ez baduzu, sakatu **Omitir** ahots-postontziaren sarrerako ontzira desbideratzeko.

Telefono zenbakiak gordetzea

Telefono-zenbakiak kontaktuen zerrendan gorde ditzakezu.

Oharra: kontaktu berriak **telefonoaren memorian** edo **SIM txartelean**, edo bietan, gorde ditzakezu. SIM txartelean gordetako kontaktuek izena eta zenbakia bakarrik eduki dezakete. Zenbakia gordetzeko tokia hautatzeko, sakatu  >  **Contactos** eta sakatu **Opciones** > **Gestionar Contactos** > **Config** > **Guardar en**.

Telefono-zenbakiak gordetzeko:

- 1 Sartu telefono-zenbakia hasierako pantailan.
- 2 Sakatu **Guardar**.

- 3 Idatzi zenbakia, telefono-zenbakiarekin lotzeko, eta, behar izanez gero, zehaztu zenbaki-mota (adibidez, **etxekoa** edo **lanekoa**).
- 4 Sakatu **Guardar** kontaktua gordetzeko.


Kontaktua editatzeko edo hari buruzko informazio gehiago gordetzeko, ikus 108. orrialdea.

Gordetako telefono-zenbakietara deitzea

Kontaktuen zerrendako zenbaki batera deitzeako:

Bilatzeke:  >  **Contactos**

- 1 Joan kontaktuetara.

Zuzeneko sarbidea: Kontaktuen zerrendan, sakatu teklatuko teklak erabili nahi duzun kontaktuari dagozkion lehenbiziko letrak sartzeko. Sakatu erdiko tekla  kontaktura joateko.

- 2 Sakatu  kontaktuari deitzeko.

Kontaktuen zerrendako sarreraren batekin **ahots bidezko markaketa** erabiltzeko, ikus 81. orrialdea.

Zure telefono-zenbakia

Pantaila nagusian, norberaren telefono-zenbakia bistaratzeko:

Bilatzeke:  >  **Configuración** > **Config. Llamadas** > **Mi Número de SIM**

Hitz egiten ari zaren bitartean zure telefono-zenbakia ikusteko, sakatu **Opciones** > **Números Teléfono**.

SIM txartelean zure izena eta telefono-zenbakia gordetzeko edo aldatzeko, aukeratu aldatu nahi duzun eremua. Zure telefono-zenbakia zein den ez badakizu, jo operadorera.

Erakargarritasun nagusiak

Deiak egiteaz eta jasotzeaz gain, zure telefonoak gauza asko egiteko aukera ematen dizu.

Audio-erreproduzizailea

Microsoft®-en Windows® Media 11 erreproduzizailearekin, inoiz ez da hain erraza izan zure ordenagailutik telefonora, eta alderantziz, musika-fitxategiak kopiatzea eta sinkronizatzea. Windows Media 11 erreproduzizailea ez baduzu (ez eta www.microsoft.com/windowsmedia gunetik doan deskargatzeko aukera ere), musika-fitxategiak zuzenean karga ditzakezu, zure telefonoa ordenagailura konektatuta, biltegiratze-txartel aldagarri bat balitz bezala.

Telefonoan gordetako musika entzuteko, erabili Bluetooth® entzungailu estereoak (aukerakoa). Erabili microSD memoria-txartel aldagarri bat telefonoan, abestiak gordetzeko (ikus, 56. orrialdea).



Zure telefonoak hegazkin modua du. Modu horrek deitzeko funtzioak desaktibatzen ditu, telefono mugikorra erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan (ikus 131 orrialdea).

Musika ordenagailuan kargatzea

Telefonoan musika kargatzeko, liburutegi digitala eduki behar duzu ordenagailuan. Windows Mediaren eskubide digitalen administrazioak (DRM) babestutako musika-fitxategiak eskura ditzakezu, on line musika-denda bateragarrietan (adibidez, Urge, Yahoo eta Napster).

Halaber, musika-fitxategiak karga ditzakezu ordenagailuan CD batetik:

- 1** Sartu musika CDa ordenagailuko CD-ROM unitatean.
- 2** Abiarazi zure multimedia-fitxategiak erreproduzitzeko zure ordenagailuko programa (adibidez, Windows® Media 11 erreproduzitzaila).
- 3** Kopiatu musika CDa multimedia-erreproduzitzailaren liburutegian (CDa erauzteka ere esaten zaio).

Ordenagailua Internetera konektatuta badago, musika CDa sartzen duzunean, litekeena da multimedia-erreproduzitzailak bildumari buruzko informazioa eskuratzea (adibidez, abestien izenburuak, bildumaren izena, artistaren izena eta bildumari buruzko material grafikoa). Abestiari buruzko informazioa eskuz ere sar edo alda dezakezu, multimedia erreproduzitzeko ordenagailuko programa erabilia. Informazio hori telefonoko musika-erreproduzitzailan bistaratuko da.

Oharra: Egile-eskubideen mende dagoen materiala baimenik gabe kopiatuz gero, Estatu Batuetako eta beste herrialde batzuetako egile-eskubideei buruzko legeetako xedapenak hausten dira. Gailu hau bakarrik erabil dezakezu egile-eskubideen mende ez dagoen materiala kopiatzeko, hau da, egile-eskubideak zureak diren materialen kasuan edo legez kopia ditzakezun materialen kasuan.

Materiala kopiatzeko eskubideei buruzko zalantzarik baduzu, jarri harremanetan zure abokatuarekin.

Telefonoan musika kargatzea Windows® Media 11 erreproduzitzai-learekin

Windows Media 11 erreproduzitzailak ordenagailutik telefonora, eta alderantziz, musika-fitxategiak kopiatzeko eta sinkronizatzeko aukera ematen du.

Oharra: Windows Media 11 erreproduzitzaila Windows XP® sistema eragilearekin edo sistema berriagoekin bakarrik dabil. Windows-en sistema eragile zaharragoren bat baduzu, ikus “Telefonoan musika kargatzea (Windows Media 11 erreproduzitzailerik gabe)”.

Oharra: Windows Media 11 erreproduzitzailak musika-fitxategiak telefonoaren memoria-txartelean bakarrik kopia edo sinkroniza ditzake. Telefonoaren memorian gordetako fitxategiak kopiatzeko edo sinkronizatzeko, ikus “Telefonoan musika kargatzea (Windows Media 11 erreproduzitzailerik gabe)” atala.

Telefonoan:

- 1** Sartu telefonoan memoria-txartela (ikus 26. orrialdea).
- 2** Sakatu  > **Conexiones** > **Config. USB** > **Sincroniz. Multimedia**
- 3** Konektatu USB kablea telefonoaren USB miniatikara eta ordenagailuan libre dagoen USB ataka batera. Telefonoko kable bidezko konexioei buruzko informazioa eskuratzeko, ikus 58 orrialdea.



Ordenagailuan

Exekutatu Windows Media 11 erreproduzitzailea. Erreproduzitzailearen pantailaren eskuineko goiko aldean bistaratuko da telefonoa, eta telefonoaren memoria-txartelean gordetako musika-fitxategiak pantailaren ezkerreko aldean, zerrenda batean, bistaratuko dira.

- 1** Hautatu Windows Media 11 erreproduzitzaileko Sincronizar fitxa.
- 2** Arrastatu eta askatu erreprodukzio-zerrendan, Windows Media 11 erreproduzitzailearen pantailaren eskuineko aldeko sinkronizazio-zerrendan.
- 3** Sakatu Iniciar sincronización, abestiak telefonoko memoria-txartelean kopiatzeko.
- 4** Amaitutakoan, deskonektatu telefonoa ordenagailutik.

Oharra: ezin dira kopiatu egile-eskubideen legeek babestutako musika-fitxategiak.

Telefonoan musika kargatzea Windows® Media 11 erreproduzitzailerik gabe

Windows Media 11 erreproduzitzailea erabili gabe, telefonoa ordenagailu batera konekta dezakezu, eta ordenagailutik telefonoko memoriara edo aukerako microSD memoria-txartel batera musika-fitxategiak eskuz kopia edo sinkroniza ditzakezu. (telefonoan memoria-txartela sartzeko, ikus 20. orrialdea).

Telefonoan:

- 1** Nahi izanez gero, sartu telefonoan memoria-txartela (ikus 26. orrialdea).

2 Sakatu  > **Conexiones > Config. USB > Tarjeta de Memoria**

3 Konektatu USB kablea telefonoaren USB miniatakara eta ordenagailuan libre dagoen USB ataka batera. Telefonoko kable bidezko konexioei buruzko informazioa eskuratzeko, ikus 58 orrialdea.



Ordenagailuan

Zure telefonoa eta memoria-txartela disko aldagarri gisa bistaritzen dira ordenagailuan.

1 Bilatu telefonoa eta memoria-txartela disko aldagarrien ikono gisa non bistaritzen diren. Windows duen PC batean, Mi PC da leku hori. Macintosh® ordenagailuetan, mahaigainean dago.

2 Sakatu bitan telefonoaren edo memoria-txartelaren disko aldagarriaren ikonoa.

3 Nahi dituzun fitxategiak telefonoan edo memoria-txartelean kopiatzeko, arrastatu eta askatu nahi duzun disko aldagarriaren ikonoan.

4 Amaitutakoan, deskonektatu kontu handiz telefonoa ordenagailutik.

- **PC bat erabiltzen ari bazara,** sakatu eskuineko botoia sistemaren ontziko “Quitar hardware con seguridad” ikonoan (ordenagailuko pantailako beheko aldean). Ondoren, hautatu “Dispositivo de almacenamiento masivo USB”.

- **Mac bat erabiltzen baduzu,** hautatu eta arrastatu disko aldagarriaren ikonoa zakarrontzira.

Oharra: ezin dira kopia egile-eskubideen legeek babestutako musika-fitxategiak.

Musika-fitxategiak erreproduzitzea

Telefonoan musika erreproduzitzeko:


Bilatzeko:  > **Multimedia** > **Mi Música** > *karpeta*ren izena

Hautatu abestu bat edo erreprodukzio-zerrenda bat ondorengo karpetetan:

Karpetak
<p>Guztiak:</p> <p>Abestiak banaka bistaratzeko eta erreproduzitzeko aukera ematen du.</p> <p>Oharra: telefonoko abesti guztiak zerrendan bistaritzen dira. Litekeena da abesti batzuek ez edukitzea artistari, diskoari edo generoari buruzko informaziorik. Beraz, ez dira zerrenda horietan bistaratuko.</p>
<p>Erreproduzitutako azkenak</p> <p>Duela gutxi erreproduzitutako abestiak ikusteko.</p>
<p>Erreprodukzio-zerrendak</p> <p>Abestien erreprodukzio-zerrenda bat sortzeko edo erreproduzitzeko aukera ematen du (ikus 42. orrialdea).</p>

Karpetak
Artistak Artista bat aukeratzeko, ondoren haren abestiak bistaratu edo erreproduzitzeko.
Bildumak Bilduma bat aukeratzeko, ondoren haren abestiak bistaratu edo erreproduzitzeko.
Generoak Musika-mota aukeratu eta mota horretako abestiak bistaratu edo erreproduzitzeko.
Konpositoreak Konpositore bat aukeratzeko, ondoren haren abestiak bistaratu edo erreproduzitzeko.
Bilatzea Gako hitz bat sar dezakezu, abestiak edo erreprodukzio-zerrendak bilatzeko.

Erabili nabigazio-tekla  abestien erreprodukzioa kontrolatzeko.

Sakatu  gora gelditzeko/erreproduzitzeko, sakatu behera gelditzeko.

Sakatu  ezkerrera/eskuinera fitxategiko hurrengo/aurreko abestira joateko.





Erreproduzitutako ehunekoak erakusten du tenporizadoreak.

Aurreko pantailara itzultzeko.

Musika-fitxategiko aukerak hautatzeko eta doitzeko.

Abesti bat entzuten ari zaren bitartean dei bat entzuten baduzu, abestia gelditu egingo da deia amaitu arte.

Abesti bat erreproduzitzen ari zarenean, sakatu **Opciones** musika-erreproduzitzailaren aukerak hautatzeko:

Aukerak
Ezkutatzea Abestiak erreproduzitzeko garaian musika-erreproduzitzaila ezkutuan edukitzeko. Musika-erreproduzitzaila berriro ikusteko, sakatu  gora. Musika-erreproduzitzailaren ezkutuko modua eteteko, sakatu  .
Kudeatzea Abestiaren ezaugarriak (adibidez, fitxategiaren izena, mota eta tamaina) bistaratzeko balio du.
Ezabatu Nahi duzun abestua ezaba dezakezu.

Aukerak
Honi bidali Abestia mezu batean edo mezu elektronikoko batean bidaltzeko; Bluetooth® konexio baten bidez beste gailu batera ere bidal daiteke
Honi aplikatu Abestia erreprodukzio-zerrenda batean erantsi edo dei-tonu gisa erabiltzeko aukera ematen du. Oharra: ezin dira erabili dei-tonu gisa egile-eskubideen legeek babestutako abestiak.

Aukerak


Bluetooth-a/Telefonoa erabiltzea

Bluetooth funtzioa aktibatuta badago, hautatu **Utilizar Bluetooth** soinua Bluetooth entzungailu batzuetara aldatzeko. Bluetooth audio-konexio bat aktibatuta badago, hautatu **Usar Teléfono** soinua berriro telefonoan entzun dadin.

Oharra: aukera hau Bluetooth funtzioa aktibo dagoenean bakarrik bistaritzen da.

Doikuntzak

Konfigurazioa pertsonalizatzeko (ikus 43. orrialdea).

Abesti bat erreproduzitzen ari den bitartean, erreproduzitzailak abestiaren izen burua, abeslaria, bilduma eta material grafikoa bistaritzen ditu, erabilgarri badaude. Tamaina handiko **material grafikoa** ikusteko, sakatu erdiko tekla  (sakatu berriro musika-erreproduzitzailera itzultzeko).

Erreprodukzio-zerrenda bat sortzea

Ordenagailuan edo telefonoan erreprodukzio-zerrendak sor ditzakezu.

Ordenagailuan erreprodukzio-zerrenda bat sortzea




Erabili Windows Media 11 erreproduzitzaila (edo multimedia-fitxategiak erreproduzitzeko zure ordenagailuko programa) ordenagailuan gordetako musika-fitxategien erreprodukzio-zerrendak sortzeko.

Telefonoan, sakatu  > **Conexiones** > **Config. USB** > **Tarjeta de Memoria**

Konektatu telefonoa ordenagailura USB konexioaren bidez; ondoren, arrastatu erreprodukzio-zerrenda eta askatu telefonoaren memoria-txartelean.

Telefonoan erreprodukzio-zerrenda bat sortzea


Bilatzeko:  > **Multimedia** > **Mi Música** > **Listas Reproducción** > **Nueva Lista Reprod.**

- 1 Idatzi erreprodukzio-zerrendarentzat izen bat, eta sakatu **Guardar**.
- 2 Joan erreprodukzio-zerrendara eta sakatu erdiko tekla  hura hautatzeko.
- 3 Joan **Añadir Canciones** aukerara, eta sakatu erdiko tekla  hura hautatzeko.
- 4 Telefonoak abesti-zerrenda bat bistaratuko du. Joan erantsi nahi dituzun abestietara, eta sakatu erdiko tekla  horiek hautatzeko.

5 Sakatu **Añadir** hautatutako abestiak erreprodukzio-zerrendara eransteko.

6 Errepikatu prozedura abesti gehiago eransteko, edo sakatu **Atrás Multimedia** menura itzultzeko.


Erreprodukzio-zerrenda bat erreproduzitzea

Bilatzeko:  > **Multimedia** **Mi Música** > **Listas Reproducción**, joan erreprodukzio-zerrendara eta hautatu **Opciones Reproducir**

Musika-fitxategiak erreprodukzio-zerrenda batean eranstea

Bilatzeko:  > **Multimedia** > **Mi Música** > *karpeta*ren izena

1 Joan erreprodukzio-zerrendan erantsi nahi duzun abestira.

Aholkua: zerrendan hainbat abesti erantsi nahi badituzu, sakatu **Opciones > Selección Múltiple** horiek hautatzeko. Telefonoak abesti-zerrenda bat bistaratuko du. Joan erantsi nahi dituzun abestietara, eta sakatu erdiko tekla  horiek hautatzeko.

2 sakatu **Opciones > Aplicar a > Lista Reprod.** Telefonoak erreprodukzio-zerrenden zerrenda bat bistaratuko du.

3 Joan erreprodukzio-zerrenda batera.

edo

Erreprodukzio-zerrenda berri bat sortzeko, sakatu **Opciones > Nueva Lista Reprod.** Idatzi erreprodukzio-zerrendarentzako izen bat, eta sakatu **Aceptar.**

4 Sakatu **Aplicar.**

5 Errepikatu prozedura abesti gehiago eransteko, edo sakatu **Atrás** aukera, **Ir a Multimedia** menura itzultzeko.

Musika-erreproduzitzailea pertsonalizatzea

Bilatzeko:  **> Multimedia > Mi Música,** pulse **Opciones > Ajustes**

Aukera hauek daude:

Aukerak
Ausaz Abestiak ausazko ordenan erreproduzitzeko.
Automatikoki errepikatzea Lehen fitxategiaren erreprodukzioa amaitzen denean, abestia edo erreprodukzio-zerrenda berriro erreproduzitzeko.

Aukerak

Estereo efektuak

Audio 3D eta **Control de Bajos** aukeratzeko, soinua pertsonalizatzeko.

Interneteko konexioa

Web-etik abestiak deskargatzeko, Interneteko konexioetako lehentasunak konfiguratzeke.

Zerrendako abestietako batera joaten zarenean, sakatu **Opciones**. Litekeena da abestiari eta zerrendari aplikatzeko moduko aukera osagarriak ere egotea (adibidez, **Borrar**, **Enviar a** eta **Aplicar a**).


Argazkiak


Bi megapixe leko kamera digitala du telefonoak; 1200 x 1600 pixeleko bereizmenarekin ateratzen ditu argazkiak. Tapa itxita duenean kamera moduan erabiltzeko diseinatuta dago telefonoa, baina tapa irekita ere atera ditzake argazkiak. Argazkia ateratzeko, apuntatu eta kliskatu besterik ez duzu egin behar. Ondoren, sakatu **Enviar** lagunei erakusteko.

Argazkiak

Sakatu *kameraren* kanpoko tekla , telefonoaren aldamenean dagoena, kameraren bisorea ikusteko.


Tapa itxita: telefonoak paisaia-formatuko argazkiak ateratzen ditu tapa itxita dagoenean.




Sakatu  gora edo behera, kameraren konfigurazioa ikusteko. Sakatu ezkerrera edo eskuinera, aldatzeko.




Kameraren aukerak hautatzeko eta doitzeko.

Tapa irekita: telefonoak erretratu-formatuan ateratzen ditu argazkiak tapa irekita dagoenean.



Aholkua: Argi gutxi dagoen lekuetan argazkiak ateratzeko, sakatu **Opciones > Flash > opción luz** kameraren argia erabiltzeko.

Bisorean ageri den argazkia ateratzeko, sakatu kameraren kanpoko tekla , telefonoaren aldamenean dagoena.

- Argazkia gordetzeko, sakatu erdiko tekla .
- Argazkia mezu batean bidaltzeko, sakatu **Enviar**  (kontsultatu 68. orrialdea).
- Argazkia baztertzeko, sakatu ezabatu/atzera tekla .
- Argazkien beste aukera batzuk hautatzeko, sakatu **Opciones**. Aukera hauek dituzu: **Guardar**, **Descartar**, **Enviar a** (mezua, mezu elektronikoa edo Bluetooth konexioa), **Aplicar a** (pantailaren hondoa, pantaila, kontaktu berria edo lehendik zegoen kontakturen bat), **Editar**, edo **Imprimir por** (Bluetooth konexioa, USB konexioa, edo memoria-txartela).

Bidalketa automatikoa

Ateratzen dituzun argazkiak zehaztutako zerrendako kontaktuei automatikoki bidaltzeko konfiguratu dezakezu telefonoa.

Bidalketa automatikoa erabiltzeko, lehenik, gordetze automatikoaren funtzioa aktibatu behar duzu.

Bilatzeke:  sakatu **Opciones > Config. Cámara > Guardar Automáticamente > Habilitar**

Ondoren, zehaztu automatikoki gordetako argazkien biltegia non dagoen.

Bilatzeke:  sakatu **Opciones > Config. Cámara > Guardado en > Tarjeta de Memoria**

Ondoren, aktibatu bidalketa automatikoa:

Bilatzeke:  sakatu **Opciones > Config. Cámara > Envío Automático > Habilitar**

Ateratzen dituzun argazkien hartzaileak zehazteko:

Bilatzeko:  sakatu **Opciones > Config. Cámara > Destinatarios Mensaje**

Aholkua: Argazkia MMS testu-mezu batean bidaltzeko, irudiaren bereizmena ezarri behar da: **Muy Baja, Baja** edo **Mediana**. Bereizmena doitzeko, sakatu kameraren kanpoko tekla . Sakatu **Opciones > Config. Cámara > Config. Imagen > Resolución**.

Kameraren konfigurazioa

Bisorea aktibo dagoenean, sakatu **Opciones** kameraren aukerak hautatzeko:

Aukerak
Capturar Argazkiak ateratzeko

Aukerak
Ir a Mi Multimedia Gordetako argazkiak eta irudiak ikusteko, editatzeko eta ezabatzeko
Modo Video Bideo-kamera aldatzeko
Flash Argi gutxi dagoen lekuetan argazkiak ateratzeko aukera bat aktibatzeko
Temporizador Automático Kameran tenporizadore bat ezartzeko, argazkiak atera daitezten
Multidisparo Kamera konfiguratzeko, argazki bat baino gehiago segidan atera daitezten

Aukerak

Config. Cámara

Kameraren aukerak pertsonalizatzea:


- **Nombre Predetermin.**
- **Guardar Automáticam.**
- **Revisar Hora**
- **Sonido Obturador**
- **Guardado en**
 - **Teléfono**
 - **Tarjeta de Memoria**
- **Envío Automático**
- **Destinatarios Mensaje**
- **Config. Imagen**
 - **Resolución**
 - **Calidad**
- **Config. Vídeo**
 - **Resolución**
 - **Calidad**
 - **Duración de Vídeo**


Bideoak

Bideoak grabatzea

Bilatzeko:  >  **Multimedia** > **Cámara de Vídeo**


Tapa itxita: telefonoak paisaia-formatuan grabatzen ditu bideoak tapa itxita dagoenean.




Sakatu  gora edo behera, kameraren konfigurazioa ikusteko. Sakatu eskuinera edo ezkerre, aldatzeko.


Bideo-kameraren aukerak hautatzeko eta doitzeko.





Tapa irekita: telefonoak erretratu-formatuan grabatzen ditu bideoak tapa irekita dagoenean.



Sakatu  gora edo behera, kameraren konfigurazioa ikusteko. Sakatu eskuinera edo ezkerre, aldatzeko.

Bideo-kameraren aukerak hautatzeko eta doitzeko.

Aholkua: bideoa MMS testu-mezu batean bidaltzeko, nahitaezkoa da bideoaren iraupena ezartzea: **MMS Corto** edo **MMS Largo**. Iraupena zehazteko, sakatu kameraren kanpoko tekla . Sakatu **Opciones > Config. Cámara > Config. Vídeo > Duración de Vídeo**.

- 1 Bideoa grabatzen hasteko, sakatu kameraren kanpoko tekla , telefonoaren aldamenean dagoena.
- 2 Sakatu **Detener** bideoaren grabazioa geldiarazteko.
 - Bideoa gordetzeko, sakatu erdiko tekla .
 - Bideoa mezu batean bidaltzeko, sakatu **Enviar**  (ikus 68. orrialdea).
 - Bideoa baztertzeko, sakatu ezabatzeko/jatzera egiteko tekla .

- Bideoaren beste zenbait aukera hautatzeko, sakatu **Opciones. Guardar, Descartar, Enviar a** (mezua, mezu elektronikoa edo Bluetooth konexioa) edo bideoa aurrez bistartzea aukera dezakezu.

Bideo-kameraren bisorea aktibo dagoenean, sakatu **Opciones** bideoaren aukera hautatzeko.

Aukerak
Capturar Bideoa grabatzen hasteko.
Ir a Mi Multimedia Gordetako bideoak ikusteko, editatzeko eta ezabatzeko.
Modo Imagen Argazki-kamera aldatzeko.

Aukerak

Audio Activado/Audio Desactivado

Audioaren grabazioa aktibatzeko edo desaktibatzeko.

Flash

Argi gutxi dagoen lekuetan bideoak grabatzeko aukera bat aktibatzeko.

Config. Cámara

Kameraren konfigurazioa pertsonalizatzeko (ikus 48. orrialdea)


Bideo-erreprodukzioa

Bideoa **telefonoan** gordeta baldin badago:

Bilatzeko: > **Multimedia** > **Videos** > *video*


Bideoa **memoria-txartean** gordeta baldin badago:

Bilatzeko: > **Multimedia** > **Videos** > **Volvera Mis Archivos** > **Tarjeta de Memoria** > *video*



Bideoa erreproduzitzen ari den bitartean, sakatu **Opciones** bideoaren aukerak hautatzeko.

Oharra: gerta liteke telefonoak beste aukera batzuk izatea. Erabiltzaileak grabatutako bideoei bakarrik aplikatu dakizkieke aukera gehienak, eta ez daude erabilgarri aurrez instalatutako bideoetarako.

Aukerak
Presentación Bideoa pantaila osoan ikusteko. (Sakatu  tamaina arruntera itzultzeko.)
Gestionar Bideoaren propiedades bistaratzeko; adibidez, fitxategiaren izena, mota eta tamaina.

Aukerak
Borrar Bideoa ezabatzeko.
Zoom Bideoaren tamaina errealera ikusteko, edo irudia handitu eta bistaratzere-remu batera doitzeko.
Enviar a Bideoa mezu batean edo mezu elektronikoko batean bidaltzeko; Bluetooth® konexioaren bidez ere bidal dezakezu beste gailu batera.

Aukerak

Utilizar Bluetooth/ Usar Teléfono

Bluetooth funtzioa aktibatuta baldin badago, hautatu **Utilizar Bluetooth**, soinua Bluetooth entzungailu batzuetara transferitzeko.

Bluetooth audioaren konexio bat aktibo baldin badago, hautatu **Usar Teléfono**, soinua berriro telefonoan entzuteko.

Oharra: aukera hau Bluetooth funtzioa aktibo dagoenean bakarrik bistaratzen da.





Ajustes

Bideoen konfigurazioa doitzeko.

Taparen funtzioak





Taparen tonua

Ezari **taparen tonua**. Tapa ireki edo ixtean erreproduzituko da:





Bilatzeko:  >  **Configuración** > **Perfiles**, pulse  hacia la derecha para seleccionar la ficha de **configuración** >  **Tono de Tapa** > **Selec. Tono de Tapa**

Aholkua: Taparen tonuaren bolumena teklatuaren bolumenari lotuta dago. Teklatuaren bolumena desaktibatuta badago, taparen soinurik ez da entzungo.

Gaiak taparen tonua ezartzen du:

Bilatzeko:  >  **Configuración** > **Perfiles**, sakatu  eskuinerantz **Configuración** fitxa hautatzeko  > **Tono de Tapa** > **Configurar según Tema**

Taparen tonua **desaktibatze**ko:

Bilatzeko:  >  **Configuración** > **Perfiles**, pulse  hacia la derecha para seleccionar la pestaña de **configuración**  > **Tono de Tapa** > **Quitar Tono de Tapa**

Tapa itxiaren funtzioa

Konfiguratu telefonoa tapa ixtean aplikazioek aktibo jarrai dezaten eta desaktiba daitezen.

Bilatzeko:  >  **Configuración** > **Config. Teléfono** > **Tapa Cerrada** > **Continuar Tarea** edo **Finalizar Tarea**

Tapa egoera hauetan ixten denean gertatzen dena zehazten du **Tapa Cerrada** aukerak.

Lana amaitzea	Lanarekin jarraitzea
Hitz egiten ari zaren bitartean	
Deia amaitu	Deiarekin jarraitu
Kamera edo bideo-kamera	
Amaitzeko tekla	Erretratu-modua aldatu eta paisaia-modua jarri; bisorea pantaila osoan agertu.
Musika-erreproduzitzailea	
Erreproduzioarekin jarraitu, musika-erreproduzitzailea ezkutatu, pantaila nagusira itzuli.	Erreproduzitzen jarraitu

Lana amaitzea	Lanarekin jarraitzea
Bideo-erreproduzitailea	
Erreprodukzioa amaitu	Erreprodukzioarekin jarraitu
Java® jokia	
Jokoa amaitu	Jokoarekin jarraitu


Pantaila osoko bisorea

Tapa itxita dagoenean, pantaila osoko bisorea bistaratzen du telefonoak, eta paisaia-formatu estandarrean ateratzen ditu argazkiak. Kamera nola erabili jakiteko, ikus 45. orrialdea.

Tapa itxita dagoenean, pantaila osoko bisorea bistaratzen du bideo-kamerak. Bideo-kameraren nola erabili jakiteko, ikus 48. orrialdea.

Teklatua blokeatzea eta desblokeatzea

Telefonoaren teklata eta aldameneko teklak blokea ditzakezu, nahi gabe ez sakatzeko, telefonoa poltsan edo patrikan baldin baduzu, adibidez.

Teklatua eta aldameneko teklak **eskuz blokeatzeko**: Pantaila nagusian, luze sakatu  tekla. Teklak blokeatuta egongo dira tapa itxi eta berriro ireki arte.

Telefonoa inaktibo eta tapa itxita dagoela teklata edo aldameneko teklak **automatikoki blokeatzeko**:

Bilatzeko:  >  **Configuración** > **Seguridad** > **Bloqueo Teclado**

Teklak blokeatzeko denbora-tarte bat ezar dezakezu (**2 segundo, 4 segundo edo 8 segundo o 10 segundo**). Teklak blokeatu egiten dira tapa ixtean, eta desblokeatu, tapa irekitzean.

Teklatua eta aldameneko teklak **desblokeatzeko**: Sakatu tekla eta jarraitu pantailako jarraibideei.

Oharra: denbora garrantzitsua den jakinarazpenetan –hala nola sarrerako deietan edo sarrerako Bluetooth konexioetan–, teklatura desblokeatu egingo da aldi baterako.

Fitxategien administratzailea

Erabili fitxategien administratzailea aplikazioa telefonoan nahiz aukerako microSD memoria-txartel aldagarrian gordetako musika, argazki eta beste zenbait multimedia-fitxategitara sartzeko eta horiek administratzeko. (Memoria-txartela telefonoan sartzeko, ikus 26. orrialdea.)



Bilatzeko: > Herramientas > Gestor Archivos

Hautatu telefonoko karpeta bat edo **memoria-txartela** haren edukia ikusteko.

Argazki edo bideo bat **ikusteko** eta soinu-fitxategi bat **erreproduzitzeko**, mugitu fitxategira eta hautatu.

Fitxategi bat **editatzeko**, mugitu fitxategi horretara eta sakatu **Opciones** ezabatzeko, izena aldatzeko, kopiatzeko, lekuz aldatzeko, bidaltzeko edo aplikatzeko. Zenbait eragiketa ezin dira egin egile-eskubideen legeek babestutako edo aurrez instalatutako fitxategi batzuetan.

Memoria-txartelaren edukia bistaratzea

Memoria-txartelean gordetako

fitxategiak ikusteko:

Bilatzeke:  >  **Herramientas** > **Gestor Archivos** > **Tarjeta de Memoria**


Oharra: baliteke memoria-txartela era batera baino gehiagora izendatu izana erabiltzaileak.

Aholkua: Telefonoak ez du ezagutzen memoria-txartela? Itzali eta piztu berriro telefonoa. Ondoren, itzuli **Gestor de Archivos** zerrendara.

Memoria-txarteletik eta ordenagailura eta alderantziz **fitxategiak kopiatzeko**, kable-konexioak erabil ditzakezu (ikus 58. orrialdea), edo, bestela, Bluetooth konexioa (ikus 64. orrialdea).

Memoria-txartela **formateatzeko** edo horren **propietateak** ikusteko (adibidez, izena eta libre dagoen lekua):

Bilatzeke:  >  **Herramientas** > **Gestor Archivos**

- 1 Sakatu  memoria-txartelera joateko.
- 2 Sakatu **Opciones** > **Tarjeta de Memoria** > **Formatear** edo **Propiedades**.

Telefonotik memoria-txartelera eta alderantziz fitxategiak eramatea edo kopiatzea

Telefonotik memoria-txartelera edo memoria-txarteletik telefonora fitxategiak (hala nola abesti-fitxategiak, argazkiak eta bideoak) eraman edo kopia ditzakezu.

Kontuz: Fitxategiren bat beste leku batera **eramanez** gero, **ezabatu** egiten da jatorrizko lekutik.

Bilatzeke:  >  Herramientas > Gestor Archivos

Hautatu telefonoko karpeta bat edo **memoria-txartela** haren edukia ikusteko.

- 1 Zoaz lekuz aldatu edo kopiatu nahi duzun fitxategira.
- 2 Sakatu **Opciones > Gestionar > Mover edo Copiar**.

Oharra: Egile-eskubideen legeek babesten badute fitxategia, **Mover** eta **Copiar** aukerak ez dira agertuko.

- 3 Zoaz fitxategia eraman nahi duzun lekura, eta, ondoren, sakatu **Colocar**.


Aholkua: Telefonoak ezin du detektatu instalatu duzun memoria-txartela? Itzali eta piztu berriro telefona.

Ondoren, saiatu fitxategia berriro kopiatzen.

Kable bidezko konexioak



Zure telefonoak USB ataka txiki bat du, ordena-gailu batera konektatu eta datuak transferi ditzazun.



Oharra: baliteke telefonoarekin batera jatorrizko USB kablea eta dagokion softwarea ematea. Nolanahi ere, bereiz ere saltzen dira elementu horiek. Begiratu ordenagailua, zer kable-mota behar duzun jakiteko.



Telefonoa ordenagailura konektatzen duzuenean, erabili nahi duzun aplikazio informatikoari egokitzeko konexio-doikuntza egin behar duzu. Telefonoaren konexio-doikuntza egin behar duzu USB kablea konektatu aurretik; izan ere, baliteke telefonoa eta ordenagailua konektatu ostean konfigurazioa aldatzeko aukerarik ez izatea.

Telefonotik ordengailura eta alderantziz kontaktuen zerrendak eta egutegiko sarrerak tranferitzeko, Motorola Phone Tools osagarrientzako aplikazioa exekutatu behar duzu. Konektatu telefonoa ordenagailura USB kable baten bidez, hala eskatutakoan. Phone Tools softwareak telefonoa konexio egokira doitzen du automatikoki, telefonoa sinkronizatzeko. Kontsultatu Phone Tools-en erabiltzailearen eskuliburua informazio gehiago lortzeko.

Konektatutako ordenagailu baten bidez **datu-deiak** egiteko, ikus 122. orrialdea.

Telefonotik memoria-txartelera eta alderantziz edo ordenagailutik memoria-txartelera eta alderantziz **fitxategiak kopiatzeko**, ikus musika-fitxategiak telefonora kopiatzeko argibideak (35. or.).

Telefonoan funtzionatzen duten fitxategi-formatuak

Telefonoan fitxategiak kopiatu aurretik, ziurtatu telefonoak ezagutzen duen formatuan daudela fitxategi horiek.

Audioa	AAC: 192 kb/s-eraino; 48 kHz; monofonikoa edo estereofonikoa; mp4, 3ga, 3gp, m4a edo aac formatuak. AAC+: 16 eta 128 kb/s bitartean; 48 kHz; monofonikoa edo estereofonikoa; mp4, 3ga, 3gp, m4a edo aac formatuak. MP3: 320 kb/s-eraino; 48 kHz; monofonikoa edo estereofonikoa; mp3 edo mpga formatuak. WAV: 320 kb/s-eraino; 48 kHz; monofonikoa edo estereofonikoa; way formatua. WMA v3, v7, v8, v9L2: 320 kb/s-eraino; 48 kHz; monofonikoa o estereofonikoa; wma formatua. Real Audio G2, 8: 96 kbps-eraino; 48 kHz; monofonikoa edo estereofonikoa; rm edo ra formatuak. Real Audio 10: 192 kb/s-eraino; 48 kHz; monofonikoa edo estereofonikoa; rm edo ra formatuak.
---------------	---

Argazkia	.JPEG: 5000 x 5000 arte; formatua: jpg. JPEG progresiboa: 1.600 x 1.200 arte; formatua: jpg. PNG: 1.280 x 1.024 arte; formatua: png. BMP: 1.280 x 1.024 arte; formatua: bmp. GIF 87a/89a: 1.280 x 1.024 arte; formatua: gif. WBMP: 1.280 x 1.024; formatua: wbmp.
-----------------	---

Bideoa	MPEG4 + AAC: 350 kb/s-erainoko bit-abiadura totala du; bideoetan, 296 kb/s, 320 x 240,15 fps; audioetan, 128 kb/s, 48 kHz, estereofonikoa; mp4 edo 3gp fitxategi-formatuak. H.263 + AAC: 350 kb/s-erainoko bit-abiadura totala du; bideoetan, 296 kb/s, 320 x 240,15 fps; audioetan, 128 kb/s, 48 kHz, estereofonikoa; 3gp fitxategi-formatua. Real Video + Audio: 350 kb/s-erainoko bit-abiadura totala du; bideoetan, 296 kb/s, 320 x 240,15 fps; audioetan, 64 kb/s, 48 kHz, estereofonikoa; rm edo rmvb fitxategi-formatuak.
---------------	--

USBa erabilia PictBridge konexio baten bidez irudi bat inprimatzea

Telefonotik edonori bidal diezaiokezu irudi bat, baldin eta haren telefonoak USB bidezko PictBridge konexioa onartzen badu.

Konektatu USB kablea USB ataka txikiari eta PictBridge-rekin bateragarria den inpresorako USB atakari.



TM

Hautatu inprimatu nahi d(it)uzun irudia(k), eta, ondoren, sakatu Opciones > **Imprimir por** > **USB**.

Haririk gabeko Bluetooth™

Telefonoak Bluetooth haririk gabeko konexioak onartzen ditu. Aukerako Bluetooth entzungailu batzuetara edo autorako aukerako Bluetooth kit batera



konekta dezakezu telefonoa, esku libreko sistema batekin deiak egiteko. Halaber, Bluetooth entzungailu estereo batzuetara konekta dezakezu telefonoa, telefonoan gordetako musika entzuteko. Konektatu telefonoa Bluetooth konexioak onartzen dituen gailu batera, fitxategiak trukatzeko. Konektatu Bluetooth konexioak onartzen dituen inprimagailu batera, irudiak inprimatzeko, edo erabili telefonoa haririk gabeko Bluetooth modem gisa, Internetera konektatzeko.


Oharra: Gidatzen ari zarela telefono mugikorra erabiltzen baduzu, arreta galaraz dezakezu. Arretaz gidatu ezin baduzu, eten elkarrizketa. Bestalde, haririk gabeko gailuak eta horien osagarriak erabiltzea debekatuta edo mugatuta egon daiteke toki batzuetan. Kontuan izan beti produktu hauek arautzen dituzten legeak eta erabilera-arauak.

Bluetooth konexioak seguruak izan daitezten, gomendagarria da Bluetooth gailuak eremu pribatu eta seguruan konektatzea beti.

Bluetooth-a aktibatzea eta desaktibatzea

Telefonoak automatikoki aktibatuko Bluetooth-a funtzio hori erabiltzean.

Halaber, funtzio hau ere erabil dezakezu Bluetooth konexioa edozein momentutan aktibatzeko edo desaktibatzeko.


Bilatzeko:  > **Conexiones** > **Bluetooth**, pulse **Opciones** > **Gestionar** > **Ajustes Bluetooth** > **Conexión Bluetooth** > **Activado** edo **Desactivado**

Oharra: Bateriaren iraupena areagotzeko eta Bluetooth konexioaren segurtasuna handitzeko, erabili prozedura hau, erabiltzen ari ez zarenean Bluetooth funtzioa


desaktibatuta jartzeko. Telefonoa ez da konektatuko beste gailu batera Bluetooth funtzio berria erabiltzen ez duzun bitartean edo Bluetooth-a **aktibatuta** jartzen ez duzun bitartean.

Entzungailuak edo autorako esku libreko Bluetooth kita erabiltzea


Telefonoa esku libreko gailu batera konektatu aurretik, ziurtatu gailua **aktibatuta eta prest** dagoela sinkronizazio- edo lotura-moduan (ikus gailu honen erabiltzailearen gida). Telefonoa une berean ezin da gailu batekin baino gehiagorekin sinkronizatu.

Bilatzeko:  > **Conexiones** > **Bluetooth**, sakatu **Opciones** > **Buscar Dispositivos** > **Manos Libres**


Bere irismenean aurkitutako gailuen zerrenda bistaratuko du telefonoak.

- 1 Zoaz zerrendako gailu batera.
- 2 Sakatu  nabarmendutako gailura konektatzeko.

Bluetooth-a aktibatuta dagoenean,

 adierazlea argi urdin finko batekin agertuko da pantaila nagusian.

Bluetooth konexioa ezartzen denean,

 adierazleak argi berdea izango du.

Kanpoko Bluetooth-aren adierazlearen argiak keinu egiten du (Bluetooth-aren konfigurazio-menuan pizten bada).

Fitxategiak beste gailu batean kopiatzea

Multimedia-fitxategiak, kontaktuak, egutegiko gertaerak edo gogokoak beste telefono batera edo ordenagailura kopia daitezke, Bluetooth konexioa onartzen badute.

Oharra: ezin dira kopiatu egile-eskubideen legeek babestutako fitxategi batzuk.

Fitxategi bat beste gailu batera kopiatu aurretik, ziurtatu gailu hartzailea **piztuta eta prest** dagoela, konektatzeko moduan, alegia. Ziurtatu ez dagoela beste Bluetooth konexio batekin okupatuta.

- 1 Telefonoan, zoaz beste gailu batera kopiatu nahi duzun objektura.

- 2 Sakatu **Opciones**, eta, ondoren, hautatu:
 - **Enviar a > Bluetooth** irudi bat edo soinu-fitxategi bat kopiatzeko.
 - **Enviar Contacto por > Bluetooth** kontaktu bat kopiatzeko.
 - **Compartir Cita por > Bluetooth** egutegiko gertaera bat kopiatzeko.

- 3 Hautatu gailu ezagun baten izena.
edo

Hautatu [**Buscar Dispositivos**] beste gailu batzuk bilatzeko, eta, ondoren, hautatu objektua zer gailutara kopiatu nahi duzun.



- 4 Sakatu **Opciones > Enviar**.

- 5 Behar izanez gero, idatzi gailura sartzeko pasahitza (adibidez, **0000**), eta sakatu **Aceptar** gailurako konexioa ezartzeko.

Beste gailu bateko fitxategiak jasotzea

Beste gailu bateko fitxategia jaso aurretik, ziurtatu Bluetooth-en elikadura **piztuta** dagoela (ikus 63. orrialdea). Zure telefonoak onartzen dituen fitxategi-formatuen zerrenda lortzeko, ikus 60. orrialdea.

- 1 Jarri telefonoa gailutik hurbil, eta bidali fitxategia gailutik.

Telefonoa eta fitxategia bidaltzeko gailua aurretik ez badira sinkronizatu, jarri telefonoa detektatzeko moduan, gailuak aurki dezan. Sakatu  > **Conexiones Bluetooth**; sakatu **Opciones > Buscar Mi Dispositivo 3 minutos**. Bluetooth-aren argi adierazlea  keinuka hasten da pantaila nagusian telefonoa detektatzeko moduan dagoenean.

Telefonoak jakinarazi egingo dizu fitxategia transferitzen eta gordetzen amaitzen duenean.

Irudia inprimagailura bidaltzea

Bluetooth konexioak onartzen dituen inprimagailu batera bidal ditzakezu irudiak.


Oharra: USBa erabilia PictBridge konexioaren bidez irudi bat inprimagailura bidaltzeko, ikus 62. orrialdea.

Oharra: 4x6, A4 edo gutunen tamainako orriak inprima daitezke. Beste tamaina batean inprimatu nahi baduzu, kopia irudia konektatuta duen ordenagailu batera, eta inprimatu handik.

1 Telefonoan, hartu inprimatu nahi duzun beste argazki bat edo zoaz gordetako irudi batera, eta, ondoren, sakatu **Opciones > Imprimir por > Bluetooth**.

Oharra: Inprimatu nahian ari zarela **Servicio no disponible** agertzen bada, hautatu haren ordez **Enviar a > Bluetooth**. (**Enviar a** aukerak ez du inprimatzen ez irudiaren izena ez data).

2 Hautatu inprimagiluaren izen ezagun bat, edo sakatu **Buscar Impresoras** irudia bidaltzeko beste inprimagailu bat bilatzeko.

Oharra: Inprimagailua lehendik ageri bada **Impresoras** zerrendan, sakatu  eskuinean, eta hautatu **Buscar Impresoras** beste inprimagailu bat bilatzeko.



- 3 Ahal izanez gero, aldatu inprimatzeko aukerak.

Bluetooth-aren funtzio aurreratuak

Oharra: gailu bat *ezagutzen* da behin konektat0 ondoren (ikus 63. orrialdea).

Funtzioak

Gailu ezagun batekin sinkronizatzea

Sakatu  > **Conexiones** > **Bluetooth**, sakatu  ezkerrera edo eskuinera, **Mis Dispositivos** zerrendan *gailuaren izena* hautatzeko.

Funtzioak

Gailuarekiko konexioa bertan behera uztea

Joan gailuaren izenera eta sakatu **Opciones** > **Gestionar** > **Extraer Dispositivo**.

Hizketan ari zarela entzungailura edo autoko kitera aldatzea.

Sakatu **Opciones** > **Utilizar Bluetooth**.

Gailu ezagun baten ezaugarriak aldatzeko:

Joan gailuaren izenera eta sakatu **Opciones** > **Gestionar**.

Bluetooth-aren aukerak konfiguratzea

Sakatu  > **Conexiones** > **Bluetooth**, pulse **Opciones** > **Gestionar** > **Ajustes Bluetooth**.

Testu-mezuak

Mezuei buruzko ezaugarri gehiago ikusteko, ikus 113. orrialdea.

Testu-mezu bat bidaltzea

Testu-mezu batek testua eta irudiak, soinuak eta multimedia-elementuak izan ditzake. Mezu batek hainbat orri izan ditzake, eta horietako bakoitzean testua eta multimedia-elementuak sartu. Mezuak telefono bateragarria duten beste erabiltzaileei bidal diezazkiekezu, edo beste helbide elektronikoko batzuetara bidali.



Bilatzeko:  >  **Mensajes** > **Nuevo Mensaje**



- 1 Sakatu teklatuko teklak orrian testua idazteko (testua idazteko moduei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus 75. orrialdea).

Orrian **irudi, soinu edo bestelako multimedia-elementuren** bat sartzeko, sakatu **Opciones** > **Insertar**. Hautatu fitxategi-mota eta, gero, fitxategia.

Oharra: litekeena da testu-mezuetan bidalitako irudien eta fitxategien tamainak murriztea.

Beste orri bat sartzeko, sakatu **Opciones** > **Insertar** > **Página**. Orri berrian testu eta objektu gehiago sar dezakezu.


- 2 Mezua bukatutakoan, sakatu **Opciones** > **Opciones de Envío**, mezuaren aukerak konfiguratzeko (adibidez, **Asunto** eta **Prioridad**).
- 3 Mezuaren aukera konfiguratu ondoren, sakatu **Fin**.

- 4 Sakatu **Enviar a** menuaren hartzaileak hautatzeko. Aukera hauek dituzu:
- Kontaktuen zerrendako sarrera bat edo gehiago hautatzea (sakatu , sarrera batera joateko; eta sakatu , erdiko tekla hautatzeko).
 - Zenbaki edo helbide elektronikoko berri bat idaztea (sakatu **Opciones** > **Introducir Número** edo **Introducir Email**).

- 5 Sakatu **Enviar** mezua bidaltzeko. Mezuak hainbat orri edo multimedia-objektu baditu, litekeena da telefonoak adieraztea multimedia-mezu bat dela. Sare batzuek eta telefono batzuek ez dituzte onartzen multimedia-mezuak. Sakatu **Sí** mezua bidaltzeko.

Mezua gordetzeko edo ezeztatzeko, sakatu **Opciones** > **Guardaren Borradores** o **Cancelar Mensaje**.

Testu-mezu bat jasotzea

Mezu bat jasotzen duzunean, telefonoak alerta bat joko du eta pantailan **Mensaje Nuevo** mezua eta mezuen adierazlea bistaratuko dira (adibidez, )



Sakatu **Leer** mezua irekitzeko. Mezuak multimedia-elementuak baditu:

- Irudiak eta animazioak mezua irakurri ahala bistaratzen dira.
- Soinu-fitxategiak mezua irakurri ahala erreproduzitzen dira. Sakatu telefonoaren alboan dauden kanpoko bolumen-teklak, soinua aldatzeko.

- Fitxategi erantsiak mezuaren amaieran atxikitzen dira. Atxikitako fitxategiak irekitzeko, hautatu fitxategiaren adierazlea edo fitxategiaren izena.

Telefonoko eguneratzeak

Batzuetan, telefonoaren softwarearen abiadura eta eraginkortasuna areagotzeko moduak bururutzen zaizkigu, zuk erosi ondoren. Zure telefonorako eguneratzeak dauden jakiteko, ikus gune hau: www.hellomoto.com/update


Oharra: softwarearen eguneratzeek ez diete eragiten kontaktuen zerrendako sarrerei eta beste sarrera edo fitxategi pertsonalei. Softwarearen eguneratzea jasotzen duzunean geroago ere instala dezakezu.


Oinarrizko kontzeptuak


Ikus 1. orrialdea, telefonoaren oinarrizko diagrama ikusteko.


Pantaila

Telefonoa piztean azaltzen da *pantaila nagusia*.




Oharra: pantaila nagusiaren itxura aldatu egin daiteke operadore batetik bestera. 



Pantaila nagusitik zenbaki bat markatzeko, sakatu zenbaki-teklak eta, gero, .

Sakatu *erdiko tekla*  edo **Menú** pantaila-tekla, **menu** nagusia irekitzeko. *Pantaila-teklen etiketek* adierazten duten uneko pantaila-teklaren funtzioa. Pantaila-teklen kokapena ikusteko, ikus 1. orrialdea.

Sakatu **Opciones** pantaila nagusian, teklatura eta telefonoaren alboko teklak blokeatzeko, argazkiak ateratzeko edo mezuak idazteko, alerten profila aldatzeko, hegazkin modua aktibatzeko/desaktibatzeko, pantaila nagusia pertsonalizatzeko edo alarma konfiguratzeko.



Pantaila nagusian, sakatu  *nabigazio-tekla* gora, behera, ezkerrera edo eskuinera, menuko oinarritzko funtzioak irekitzeko.

Pantaila nagusian, funtzio horien ikonoak bistara edo ezkuta ditzakezu, eta bistaratzen diren ikonoak aldatu ditzakezu. Pantaila nagusian ikonoak bistaratzeko edo aldatzeko moduari buruzko informazio gehiago behar izanez gero, ikus 118. orrialdea.

Aholkua: Laguntza behar duzu? Sakatu **Menú** >  **Herramientas** >  **Ayuda**. Hautatu **Ayuda** aukerako bai bat telefonoko funtzioei buruzko informazioa bilatzeko.

Pantaila nagusiko goiko aldean egoera-adierazle hauek bistara daitezke:





1 Estalduraren adierazlea: barra bertikalek adierazten dute haririk gabeko sarearen estaldura-maila. Ezingo duzu deirik egin edo jaso,  edo  adierazleak bistaratzeko direnean. Δ desplazamendu-adierazleak adierazten du telefonoa erabiltzailearena ez den sare-sistema bat bilatzen edo erabiltzen ari dela.

2 EDGE/GPRS adierazlea:




Telefonoa *EDGE (Enhanced Data for GSM Evolution, GSMaren bilakaerarako datu hobetuak)* abiadura handiko sarearen konexioa edo *GPRS konexioa (General Packet Radio Service, paketekako irrati-komunikazioen zerbitzua)* noiz erabiltzen ari den adierazten du. Adierazleak hauek izan daitezke:


 = EDGE konexioa


 = GPRS konexioa


 = EDGE datu-transferentzia

 = GPRS datu-transferentzia

 = EDGE datu-transferentzia seguru

 = GPRS datu-transferentzia seguru


 = EDGE datu-transferentzia ez seguru


 = GPRS datu-transferentzia ez seguru

3 Bluetooth-aren adierazlea:

Bluetootha aktibatuta, konektatuta eta ikusgai dagoen ala ez adierazten du:

 argi urdin finkoa = Bluetooth-a aktibatuta dago

 argi urdin finkoa = Bluetooth-a konektatuta dago

 argi urdina keinuka = Bluetooth-a ikusteko moduan dago

4 Mezuen adierazlea: mezu berri bat jaso denean bistaritzen da. Adierazleak hauek izan daitezke:



= testu-
edo ahots-
mezua

= mezu
elektronikoa

5 Kokapenaren adierazlea: telefonoaren kokapen-egoerari buruzko informazioa bistaritzen du.



= kokapena
aktibatuta

= kokapena
desaktibatuta

= kokapena
bilatzen

= kokapena
finkoa

= kokapen
ezezaguna

6 Profilaren adierazlea: alerta-motaren konfigurazioa bistaritzen du.

= txirrina
bakarrik

= txirrina eta
bibrazioa

= bibrazioa
bakarrik

= bibrazioa
eta, ondoren,
txirrina

= isilik

7 Linea aktiboaren adierazlea: bistaritzen du dei aktibo bat adierazteko, edo deiak berriro bidaltzeko funtzioa aktibatu dela adierazteko. Bi linea dituzten SIM txartelen adierazleak hauek dira:



= 1 linea
aktibatuta

= 2 linea
aktibatuta


= deiak
berriro egitea
aktibatuta 1.
linean

= deiak
berriro egitea
aktibatuta 2.
linean





8 Baterien adierazlea: barra bertikalek bateriaren karga-maila adierazten dute. Kargatu berriro bateria telefonoan **Bateria Baja** bistarazten denean.

Testua idaztea

Funtzio batzuen bidez testua idatz daiteke. Testua idazteko hainbat modu erabil ditzakezu.







Sakatu **Opciones** testua idazteko aukerak aldatzeko.


Testua idazteko moduak	
	"Hitza" modua (ikus 77. orrialdea)
	"Abc" modua (ikus 78. orrialdea)
	Zenbakien modua (ikus 79. orrialdea)
	Ikurren modua (ikus 79. orrialdea)


Testua idazteko aukerak eta hizkuntza aldatzeko:

Bilatzeko:  >  Configuración > Config. Teléfono > Método de Escritura

Maiuskulaz edo minuskulaz idazteko aukerara aldatzeko: Sakatu  testua idazteko pantailan, maiuskulaz idazteko (), hurrengo letra maiuskulaz idazteko () edo hurrengo letra minuskulaz idazteko (ez du ikurrik).

Telefonoak esaldiko lehenengo letra idazten du maiuskulaz, baldin eta erabiltzaileak  sakatzen ez badu (hurrengo letra minuskulaz idazteko).

Testu idazteko modu prediktiboa ezartzeko: idazten dituzun hitzak memoriza ditzake telefonoak, testua idazteko modu prediktiboa eta testua osatzeko modua hobetzeko. Idatzi hitza eta sakatu **Opciones > Método de Escritura > Configurar Texto Predictivo > Aprender Palabras**. Telefonoak  bistaratzen du funtzio hori aktibatuta dagoenean.

Testu osatzeko modua ezartzeko: konfiguratu telefonoa lerro batean hiru karaktere edo gehiago sartzen dituzunean hitzaren gainerako zatia asma dezan. Idatzi hitza eta sakatu **Opciones > Método de Escritura > Configurar Texto Predictivo > Completar Palabras**. Telefonoak  bistaratzen du testua osatzeko funtzioa aktibatuta dagoenean.

Puntuazio-ikurrak idaztea: Sakatu **[1]** puntuazio-ikurrak eta bestelako karaktereak sartzeko.

Testua editatzea edo ezabatzea: Sakatu **[↶]** kurtsoarea aldatu nahi duzun testuaren eskuinean jartzeko. Sakatu *borraratrás* **[↶]** teklak, kurtsoarearen ezkerrean dagoen karakterea ezabatzeko. Luze sakatu **[↶]** kurtsoaren ezkerreko aldean dagoen hitza ezabatzeko.

“Hitza” modua

Sakatu **[#]** testua idazteko pantailan, testua idazteko modu prediktibora aldatzeko (“hitza”). Pantailan **[Alt]** bistaratzen du telefonoak.

“Hitza” moduaren bidez, letra bakoitzari dagokion tekla behin bakarrik sakatuta idatz daitezke hitzak. Telefonoak teklen

pultsazioak konbinatzen ditu hitz arruntak sortzeko, eta idazten duzun neurrian aurretan ditu hitzak.

Adibidez, **[7]** **[7]** **[6]** **[4]** sakatzen baduzu, telefonoak hau bistaratuko du:


Testua osatzeko modua aktiba **[↵]** edo desaktiba **[↵]** dezakezu.

Sakatu **[✕]** **Prog** eta zuriune bat idazteko.

Sakatu **[↶]** gorra/behera beste hitz batzuk ikusteko.

Sakatu **[↶]** hitza hautatzeko.

Sakatu **[↶]** kurtsoarearen ezkerreko aldean dagoen karakterea ezabatzeko.




Abc modua

Sakatu **#** testua idazteko pantailan, testua idazteko "abc" modura aldatzeko. Testuaren pantailan **Ab** bistaratuko da.

Testua idazteko, sakatu teklatuko tekla bat behin eta berriro, nahi duzun letra edo zenbakia azaldu arte. Errepikatu urrats hori letra bakoitza idazteko.

Adibidez, **7** behin sakatzen baduzu, pantailan hau bistaratuko da:



Bi segundo pasatu ondoren, sistemak onartu egiten du karakterea eta kursora hurrengo posizioa mugitzen da.

Testua osatzeko modua aktibatuta dagoenean, telefonoa hitzaren beste zatia asmatzen saiatuko da:

- Sakatu **⬅** proposatutako hitza hautatzeko.
- Sakatu **➡** eskuinera proposatutako hitza eta tarte bat idazteko.

- Beste hitz bat idatzi nahi baduzu segitu teklatuko teklak sakatzen gainerako karaktereak idazteko.

Testua osatzeko modua aktibatzeko, ikus 76. orrialdea.

Zenbakiaren modua

Sakatu **#** testua idazteko pantaila batean, **123** ikusi arte. Sakatu zenbaki-teklak, zenbakiak idazteko.

Aholkua: zenbaki bat bakarrik idatzi nahi duzu? Zenbaki bat bizkor sartu nahi baduzu, luze sakatu zenbaki-teklak pantailan zenbaki hori bistaratu arte.


Ikurren modua

Sakatu **#** testua idazteko pantaila batean, **@** ikusi arte. Pantailan teklatuko teklak bakoitzari dagokion ikurra bistaratu da.


Sakatu **☰** gora/behera behin eta berriz, gainerako ikurrak ikusteko. Ikur bat sartzeko, sakatu hari dagokion teklak edo joan ikurrera eta sakatu erdiko teklak **⬅**.

Bolumena



Sakatu telefonoaren alboan dauden kanpoko bolumen-teklak.



- sarrerako deien alerta desaktibatzeko
- hitz egiten ari zarenean, entzungailuaren edo bozgorailuaren bolumena aldatzeko
- abesti bat edo bideo bat erreproduzitzen ari zarenean, bozgorailuaren bolumena aldatzeko


Aholkua: pantaila nagusian, telefonoaren alerten profila konfiguratzeko, sakatu bolumen-teklak profil batera joateko, eta, ondoren, sakatu erdiko tekla  edo alboko hautaketa-tekla hura aukeratzeko.


Nabigazio-tekla

Sakatu nabigazio-tekla  gorantz, beherantz, ezkererantz edo eskuinerantz, menuko elementu batetik bestera mugitzeko. Elementu batera mugitzen zarenean, sakatu  tekla hura hautatzeko.



Alboko aukeraketa-tekla

Alboko hautaketa-teklak gauzak beste era batera egiteko aukera ematen dizu. Adibidez, menuko elementu batera joaten zarenean, alboko hautaketa-tekla saka dezakezu hura hautatzeko ( erdiko tekla sakatu beharrean).



Aholkua: Pantaila nagusian, sakatu alboko hautaketa-tekla nabigatzailea abiarazteko.

Ahots-komandoak

Ahots-komandoak erabil ditzakezu telefonoari zer egin nahi duzun adierazteko.

Oharra: Funtzio hau aukerakoa da. Hizkuntza batzuk ez dute ahots-komandoa onartzen.

Ahots bidezko markaketa erabilia deitzea

Kontaktuen zerrendako zenbaki bat marka dezakezu, kontaktuarekin gordetako izena esanda edo telefonoko zenbakiak banan-banan esanda.

- 1 Luze sakatu telefonoaren albo batean dagoen *ahots-komandoaren* kanpoko tekla .

Telefonoak ahotsa ezagutzeko aplikazioa du, eta komando edo izen bat esateko eskatzen du.


- 2 Txistua entzun ondoren, esan sartu beharreko izena, kontaktuen zerrendan sartuta dagoen bezala. Telefonoak izena egiaztatu eta deia egiten du.

edo

Esan “Marcar número”. Telefonoak telefono-zenbakiko digitu guztiak esateko eskatuko dizu. Esan zenbakiak. Telefonoak zenbakia egiaztatu eta deia egiten du.


Iradokizunak:

- Kontaktu baten zenbakia eta zenbaki-mota esan ditzakezu aldi berean. Adibidez, esan “Juan López móvil” Juan Lópezen mugikorrera deitzeko.

- Esan zenbakiak abiadura eta bolumen egokian, digituak banan-banan aparte ahoskatuz. Ez egin etenik digituen artean.
- Ahots-komandoei buruzko laguntza eskuratzeko, sakatu ahots-komandoaren tekla , eta, ondoren, sakatu **Ayuda**.

Telefonoan ahots bidez aktiba daitezkeen funtzioak


Erabili ahots-komandoaren teklak aplikazioak irekitzeko eta telefonoko oinarritzko funtzio batzuk egiteko.

- 1 Luze sakatu telefonoaren albo batean dagoen ahots-komandoaren kanpoko tekla  . Telefonoak ahotsa ezagutzeko aplikazioa kargatzen du, komandoa esateko eskatzen du eta erabilgarri dauden ahots-komandoen zerrenda bistaratzen du.

- 2 Txistua entzun ondoren, esan zerrendako komando bat.

Ahots-komandoak
<i>"nombre"</i>
"Marcar número"
"Mandar mensaje a <i>nombre de contacto</i>"
"Revisar calendario"
"Revisar mensaje nuevo"
"Revisar correo electrónico"
"Añadir nuevo contacto"
"Teléfono parlante"
"Verificar batería"
"Verificar cobertura"
"Verificar hora"

Ahots-komandoak
“Verificar fecha”
“Abrir configuración”
“Abrir llamadas recientes”
“Abrir tema”
“Abrir cámara”
“Abrir navegador”
“Modo vuelo”
“Apagado modo vuelo”
“Configurar timbre”
“Modo normal”
“Modo vibrador”
“Modo silencioso”

Aholkua: Sakatu eta askatu ahots-komandoen tekla  ahots-komando guztien zerrenda ikusteko.

Esku-librekoaren bozgorailua

Telefonoaren esku libreko bozgorailua erabil dezakezu telefonoa belarriaren ondoan eduki gabe deitzeko.

Hitz egiten ari zarela, sakatu **Opciones** > **Altavoz** esku libreko bozgorailua pizteko. Pantaila mikrofonoaren adierazlea bistaratuko du, itzali arte (sakatu **Opciones** > **Altavoz**) edo deia amaitu arte.


Oharra: Gidatzen ari zarela telefono mugikorra erabiltzen baduzu, arreta galaraz dezakezu. Arretaz gidatu ezin baduzu, eten elkarrizketa. Bestalde, haririk gabeko gailuak eta horien osagarriak erabiltzea debekatuta edo mugatuta egon daiteke toki batzuetan. Kontuan izan beti produktu hauek arautzen dituzten legeak eta erabilera-arauak.

Kodeak eta pasahitzak

Telefonoaren lau digituko **desblokeatze-kodea 1234** da, hasiera batean, eta 6 digituko **segurtasun-kodea**, berriz, **000000**. Operadoreak kodeak aldatu ez baditu, zuk aldatu beharko zenituzke:

Bilatzeke:  >  **Configuración** > **Seguridad** > **Cambiar Códigos**

SIM txartelaren PIN kodeak eta deiak blokeatzeko pasahitzak ere alda ditzakezu.

Desblokeatze-kodea ahaztu bazaizu: **Verificar el Código de Desbloqueo** eskatzen dizunean, sartu 1234 edo zure telefonozenbakiko azken lau digituak. Horrek balio ez badu, sakatu  eta sartu sei digituko segurtasun-kodea.

Beste kode batzuk ahaztu

bazaizkizu: Segurtasun-kodea, SIM txartelaren PINa, PIN2 kodea edo deiak blokeatzeko pasahitza ahaztu baduzu, jarri harremanetan zure operadorearekin.

Telefonoa blokeatzea eta desblokeatzea

Telefonoa blokea dezakezu beste pertsona batzuek erabil ez dezaten. Telefonoa blokeatzeko edo desblokeatzeko, lau digituko desblokeatze-kodea behar duzu.

Aholkua: telefonoko teklatura blokeatzeko edo desblokeatzeko, ikus 55. orrialdea.

Telefonoa **eskuz blokeatzeko:**

Bilatzeke:  >  **Configuración** > **Seguridad** > **Bloqueo Teléfono** > **Bloquear**

Telefonoa itzaltzen duzun bakoitzean
automatikoki blokeatzeko:

Bilatzeko:  >  **Configuración** >
Seguridad > **Bloqueo Teléfono** > **Bloquear al**
Encender > **Activado**

Oharra: telefonoa blokeatuta badago
ere egin ditzakezu larrialdiko deiak (ikus
101. orrialdea).

Pertsonalizatzea

Profilak

Telefonoko alerta-mota edo –profila bizkor alda dezakezu, zure jarduerara, ingurura edo eskakizun pertsonaletara egokitzeko. Profil bakoitzak tonu- edo bibrazio-multzo bat erabiltzen du sarrerako deietarako eta bestelako gertaeretakoko. Alerta-profila pantaila nagusiaren goiko aldean bistaratuko da:

 **Sólo Timbre**

 **Timbre y Vibrar**

 **Sólo Vibrar**

 **Vibrar desp. Timbre**

 **Silencioso**

Profila aldatzeko: Pantaila nagusian, sakatu telefonoaren alboan dauden kanpoko bolumen-teklak.

Beste aukera hau ere baduzu, pantaila nagusian: **Opciones > Cambiar Tipo Alerta.**








Silencioso profilak telefonoa isilarazten du, beste profil bat hautatu arte.

Alerta-moten konfigurazioa aldatzea

Alerta-mota estandarrak erabiltzen dituen tonuak alda ditzakezu, jasotzen dituzun deien eta beste gertaeren berri jasotzeko. Halaber, profil bakoitzaren alertaren, teklatuaren eta multimedia-erreprodukzioaren bolumena alda ditzakezu. Bi linea dituzten SIM txartelen kasuan, tonu desberdinak defini ditzakezu 1. linean edo 2. linean jasotako deiak identifikatzeko.

Oharra: ezin da tonurik konfiguratu **Silencioso** profilerako, ez eta estilo jakin batzuen doikuntzak aldatu ere.

Bilatzeko:  >  **Configuración** > **Perfiles**
> **Tipo de Alerta** > *alerta-mota*

- 1 Sakatu  ezkerrera edo eskuinera alertas aukeraren fitxa , volumen aukeraren fitxa , mensajes aukeraren fitxa  edo configuración aukeraren fitxa  hautatzeko.
- 2 Sakatu  gora edo behera, aldatu nahi duzun alertaren edo bolumenaren konfiguraziora joateko, eta, ondoren, sakatu erdiko tekla .
- 3 Hautatu ezarri nahi duzun doikuntza-balioa.

- 4 Alerta-moten konfigurazioa aldatu ondoren, sakatu **Atrás** irten eta aldaketak gordetzeko.

Alerta-mota batean lehenetsitako konfigurazioa **berrezartzeko**:

Bilatzeko:  >  **Configuración** > **Perfiles**
> **Tipo de Alerta** > *alerta-mota*, sakatu **Opciones** > **Restablecer**

Profil berri bat sortzea

Zuk aukeratutako tonu- eta bolumen-konfigurazioekin profil **berri** bat sortzeko:

Bilatzeko:  >  **Configuración** > **Perfiles** > **Tipo de Alerta** > *alerta-mota*

- 1 Altatu alerta-moten konfigurazioa, aurreko atalean deskribatzen den bezala.

- Alerta-moten konfigurazioa aldatu ondoren, sakatu **Opciones > Guardar como Perfil**.
- Idatzi izen bat profilarentzat, eta, ondoren, sakatu **Guardar** gordetzeko.

Profil **osagarriak** sortzeko:

Bilatzeko:  >  **Configuración > Perfiles**, sakatu **Opciones > Nuevo Perfil**

Oharra: alerta-profilaren konfigurazioa gaika ezar daiteke. Gai berri bat aplikatzen duzunean, gaiko alertaren konfigurazioa uneko profilerara aplikatzeko aukera duzu. Aukera hori hautatzea, uneko profila **aldatu** egingo da, eta gaiko alertaren konfigurazioa erabiliko du.

Profilak editatzea edo ezabatzea

Profil bat **editatzeko**:

 >  **Configuración > Perfiles**, joan profilerara eta sakatu **Opciones > Editar**

Oharra: ezin da editatu **Silencioso** profila, ez eta profil jakin batzuen doikuntzak aldatu ere.

Erabiltzaileak definitutako profil bat ezabatzeko:

Bilatzeko:  >  **Configuración > Perfiles**, joan profilerara eta sakatu **Opciones > Borrar**

Alerta-moten konfigurazioa lehengoratzea

Erabiltzaileak definitutako profil guztiak ezabatu eta alerta-moten jatorrizko konfigurazioa ezartzeko:

Bilatzeko:  >  **Configuración** > **Perfiles**, joan profilerara eta sakatu **Opciones** > **Restabl. Ajustes Sonido**

Eguna eta ordua

Telefonoak automatikoki eguneratu ditzake ordua eta data. Erabili ordua eta data **egutegirako**.



Ordua eta eguna sarekoarekin **sinkronizatzeko:**



Bilatzeko:  >  **Configuración** > **Config.**
Teléfono > **Hora y Fecha** > **Hora Automática** > **Activado**

Ordua eta data **eskuz** konfiguratzeko

Bilatzeko:  >  **Configuración** > **Config.**
Teléfono > **Hora y Fecha** > **Hora Automática** > **Desactivado**

Ordua eta data doitzeko, sakatu  ezkerrera edo eskuinera, konfiguraziora joateko; ondoren, sakatu  gora edo behera hura aldatzeko. Hautatu **Configurar** konfigurazioa gordetzeko.



Pantaila nagusian, **12 orduko edo 24 orduko** erloju digitala bistaratzeko:

Bilatzeko:  >  **Configuración** > **Config.**
Teléfono > **Hora y Fecha** > **Formato Hora** > **Reloj**
12 horas edo Reloj 24 Horas

Pantaila nagusiko **dataren formatua** aukeratzeko:

Bilatzeke:  >  **Configuración** > **Config. Teléfono** > **Hora y Fecha** > **Formato Fecha**

Uneko **ordu-eremua** aukeratzeko:

Bilatzeke:  >  **Configuración** > **Config. Teléfono** > **Hora y Fecha** > **Zona Horaria** eta, ondoren, hautatu zure ordu-eremuan dagoen hiri bat.

Zuzeneko sarbidea: sakatu teklatuko tekla, nahi duzun hiriaren lehen letrak idazteko.

Gaiak

Erabili telefonoaren *gaia* telefonoaren itxura eta soinua pertsonalizatzeko. Gai gehienetan hauxe sartzen da: pantailaren hondoko irudi bat, pantaila-babes gisa jartzeko irudi bat eta hainbat tonu.



Gai bat **aplikatzeko:**

Bilatzeke:  >  **Configuración** > **Temas** > *gaia*

Nahiago baduzu, pantaila nagusian, sakatu **Opciones** > **Personalizar** > **Cambiar Tema**.

Oharra: alerta-profilaren konfigurazioa gaika ezar daiteke. Gai berri bat aplikatzen duzunean, gaiko alertaren konfigurazioa uneko profilera aplikatzeko aukera duzu. Aukera hori hautatzea, uneko profila **aldatu** egingo da, eta gaiko alertaren konfigurazioa erabiliko du.

Gai bat **deskargatzeko**, ikus 130. orrialdea.

Gai bat **ezabatze**ko:




Bilatzeko:  >  **Configuración** > **Temas**, joan gaira, eta sakatu **Opciones** > **Gestionar** > **Borrar**



Oharra: Deskargatutako gaiak edo zuk sortutako gai pertsonalizatuak bakarrik ezaba ditzakezu.

Gai bat aldatzea

Telefonoan gai batek aplikatzen dituen irudiak eta soinuak alda ditzakezu.

Bilatzeko:  >  **Configuración** > **Temas** joan gaira eta sakatu **Opciones** > **Editar**

- 1 Sakatu  ezkerrera edo eskuinera, **imágenes** aukeraren fitxa  edo **sonidos** aukeraren fitxa  aukeratzeko.



- 2 Sakatu  gora edo behera, aldatu nahi duzun konfiguraziora joateko, eta, ondoren, sakatu erdiko tekla .
- 3 Joan nahi duzun irudira edo soinu-fitxategira, eta hauta ezazu.
- 4 Sakatu **Guardar** gaiko aldaketak gordetzeko.

Pantaila nagusian, **Fondo de Pantalla** bistaratzen da, atzeko irudi gisa.

Pantaila-babesa bistaratuko da denbora-tarte jakin batean jarduerarik egon ez bada. Denbora-tarte hori ezartzeko, ikus hurrengo atala.

Interfaz aukerak telefonoko pantailaren itxura ezartzeko aukera ematen du.

Aldatutako gai baten konfigurazio estandarra **lehengoratzeko**:


Bilatzeke:  >  **Configuración** > **Temas**
> *gaia*, sakatu **Opciones** > **Gestionar** >
Restablecer

Telefonoan lehenetsitako gaia **lehengoratzeko**:

Bilatzeke:  >  **Configuración** > **Temas**,
sakatu **Opciones** > **Gestionar** > **Restabl. a**
Predeterminado

Gai berri bat sortzea

Zuk aukeratutako irudiak eta soinuak dituen gai bat sor dezakezu.

Bilatzeke:  >  **Configuración** > **Temas**,
sakatu **Opciones** > **Crear Nuevo** edo **Crear una**
Copia

Pantailaren itxura

Pantailaren distira egokitzeko:

Bilatzeke:  >  **Configuración**
> **Config. Teléfono** > **Config. Pantalla** > **Brillo**

Bateriaren iraupena luzatzeko, teklatuaren **atzeko argia** desaktibatuta egin daiteke, telefonoa erabiltzen ez denean. Atzeko argia berriro piztuko da tapa irekitzen/jixten duzunean edo edozein tekla sakatzen duzunean. Pantailaren atzeko argia itzali baino lehen telefonoak zenbat denbora itxarongo duen ezartzeko:

Bilatzeke:  >  **Configuración** > **Config. Teléfono** > **Config. Pantalla** > **Apagar Luz de Fondo**

Bateriaren iraupena luzatzeko, **pantaila** itzali egin daiteke telefonoa erabiltzen ez denean. Pantaila berriro piztuko da tapa irekitzen /jixten duzunean edo edozein tekla sakatzen duzunean.

Pantaila itzali baino lehen telefonoak zenbat denbora itxarongo duen konfiguratzeko:

Bilatzeko:  >  **Configuración** > **Config. Teléfono** > **Config. Pantalla** > **Apagar Pantalla**

Pantaila-babesa bistaratu aurretik zenbat denbora (jarduerarik gabeko denbora) pasatu behar den aukeratzeko:

Bilatzeko:  >  **Configuración**
> **Config. Teléfono** > **Config. Pantalla** > **Salvapantallas**

Oharra: Pantaila-babesa ikusteko, **Apagar Pantalla** aukerak handiagoa izan behar du **Salvapantallas** aukerak baino.

Aholkua: Bateriaen iraupena luzatzeko, desaktibatu pantaila-babesa.

Zuzeneko sarbideak eta menu nagusia

Menu nagusiko zuzeneko sarbideak

Pantaila nagusitik, nabigazio-tekla gora, behera, eskuinera edo ezkerrera saka dezakezu, gogoko funtzioetara joateko **zuzeneko sarbide** gisa. Tekla horiek zabaltzen dituzten funtzioak alda ditzakezu. Nabigazio-teklaren kokapena ikusteko, ikus 1. orrialdea.




Bilatzeko: Pantaila nagusian, sakatu **Opciones** > **Personalizar** > **Accesos Directos**

Aukerak

Ikonoak bistaratzea

Pantaila nagusian, nabigazio-teklaren zuzeneko sarbideen ikonoak bistaratzeko edo ezkutatzeko.

Oharra:  saka dezakezu gora, behera, ezkerrera edo eskuinera pantaila nagusiko funtzioak aukeratzeko, baita ikonoak ezkutuan daudenean ere.

Gora, Behera, Ezkerrera, Eskuinera


Aukeratu zer funtzio irekitzea nahi duzun pantaila nagusian, nabigazio-teklak gora, behera, ezkerrera edo eskuinera sakatzen dituzunean.

Menu nagusiaren itxura

Menu nagusia ikono grafikoekin

laukia osatuta edo testu-zerrenda gisa bistaratzeko:

Bilatzeke: Menu nagusian, sakatu **Opciones > Ver por > Cuadrícula** edo **Lista**

Zuzeneko sarbidea: Menu nagusian, sakatu  menu nagusia zerrenda gisa bistaratzeko eta alderantziz.

Menu nagusia pertsonalizatzea

Karpeta berri bat sor dezakezu menu nagusian (ikono pertsonalizatu batekin); ondoren, mugitu menuko funtzioak karpeta berrira, sortu azpikarpetak eta berrantolatu telefonoaren menuen egitura, zure beharretara egokituta.

Menu nagusian **karpeta berri bat sortzeko:**

Bilatzeko: menu nagusian, sakatu **Opciones > Nueva Carpeta.**

Idatzi karpeta berriaren izena, hautatu ikono grafiko bat karpeta identifikatzeko eta sakatu **Guardar** karpeta menu nagusian gordetzeko.

Menuko funtzio bat sortu berri duzun karpetara **mugitzeko:** Joan mugitu nahi duzun funtziora, sakatu **Opciones > Mover a Carpeta**, joan helburuko karpetara eta sakatu **Colocar.**

Karpeta batean **azpikarpeta bat sortzeko:** Ireki karpeta, sakatu **Opciones > Nueva Carpeta.**

Zuk sortutako **karpeta bat ezabatzeko:** Atera menuko funtzio guztiak eta azpikarpetak karpetatik kanpora, joan karpetara eta sakatu **Opciones > Gestionar > Borrar Carpeta.**

Menu nagusiaren ordena aldatzeko:


Bilatzeko: Menu nagusian, sakatu **Opciones > Reordenar**

Erantzuteko aukerak

Sarrerako deiei erantzuteko hainbat modu daude. Erantzuteko aukera bat aktibatzeko edo desaktibatzeko:

Bilatzeko:  >  **Configuración Config. Llamadas > Llamada Entrante > Opciones Respuesta**

Aukerak
Edozein teklak erantzuten du Edozein tekla sakatuta erantzun dezakezu.
Erantzuteko irekitzea Tapa irekita erantzun dezakezu.

Oharra: tapa ireki eta  saka dezakezu beti deiari erantzuteko.

WAP profilak konfiguratzea

